

**PLENTZIAKO BIZKAIERA 1860AN
J. KRUZ DE RENTERIAREN LIBURU
EZEZAGUN BATEN ARABERA
(III. ZATIA)**

J. M.^a Etxebarria

Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura 11 (1991), p, 81-128
ISSN: 0212-3223
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Plentziako bizkaieran gaur dagozan bertako lekuoa oso gitxi dira. Hemen aurkezten dodan testu hau 1860 ingurukoa da eta egilea J. Kruz de Renteria. Aita Plentziakoa zan, eta Mungian jaio arren, bere abade bizi-tza guzti Gorlizko emon eban, 1832tik 1874 arte. Bonaparteren laguntzaile izan zan, A. Uriartek eskatuta, dotri-na itzuli ebalako Plentziako euskerara. Baino A. Uriarte eta A. Estarta frantszikotarrak ez eben onartzan bere idazkera, ez ebalako jarraitzen eredu lez erabiltzen zan grafia.

Sermoi liburu hau ez eben ezagutu orduan, eta abade baten eskuetatik beste baten eskuetara gaur arte iritxi da.

Interesgarria da, itzulpen huts bat ez dalako, Renteriak berak egindako sermoiak baino.

Hemen sarrera linguistiko labur bategar, sermoi liburuaren hirugarren zatia aurkezten dot.

Los vascoparlantes de dialecto vizcaíno de Plencia y sus alrededores son muy pocos actualmente. El texto que presento, es de una fecha próxima a 1860 y su autor fue J. Cruz de Rentería. Su padre era de Plencia, y aunque él nació en Munguía, estuvo toda su vida de cura, desde 1832 hasta 1874, en Górliz. Debia de ser buen conocedor del euskera de la zona porque el P. Uriarte le pidió que le tradujera el catecismo de Astete al euskera de Plencia, para enviárselo al príncipe Bonaparte. Cosa que hizo Uriarte.

Pero tanto él como el P. Estarta, franciscanos, no estaban de acuerdo con la grafía de Rentería, que no seguía el modelo comúnmente aceptado entonces. Pero Rentería sentía interés por el euskera de la zona y redactó este libro de sermones, que pasó a manos de algún cura y de éste fue a parar a algunos familiares de otro cura.

Aquí presento una breve introducción lingüística y la tercera y última parte del libro. Como no es una simple traducción, puede ser útil para un mejor conocimiento de la variedad de Plencia del euskera vizcaíno.

A présent il y a très peu de gens qui parlent le dialecte Biscaien de Plencia et ses alentours. Le Texte que je présente est daté autour de 1860, et l'auteur est J. Cruz de Renteria. Son père était de Plencia, et quoiqu'il naquit à Munguía, il passa toute sa vie comme curé à Górliz, de 1832 jusqu'à 1874. Il avait dû être un bon connaisseur de la langue basque de cette région, parce que l'abbé Uriarte le demanda de traduire le cathéchisme d'Astete en Basque de la région de Plencia, pour envoyer la traduction au prince Bonaparte, ce que Uriarte en effet fit.

Mais tant lui-même que l'abbé Estarta, étant les deux franciscains, n'étaient pas d'accord sur la graphie de Rentería, qui ne suivait pas le modèle couramment accepté à cette époque-là. Mais Renteria était intéressé à la langue basque de la région et il rédigeait ce livre de sermons, qui plus tard parvenait entre les mains de quelqu'autre curé, et finalement était au pouvoir des parents d'un autre curé.

Je présente ici une introduction linguistique brève, et la troisième et dernière partie du livre. Puisqu'il ne s'agit pas d'une simple traduction, le texte peut être utile afin d'acquérir une connaissance plus profonde du dialecte Biscaien de la région de Plencia.

Sarrera hau, L. Akesolo zanak eta biok prestatu gendun Eusko Ikaskuntzaren IX kongresurako, eta han agertu zan, 405-411 orrialdeetan. Hemen zuzenketa txiki batzuk ipinita agertzen da. Geroago nik traskribatu dodazan sermoi liburu honetako testu guztiek zatikak argitaratuta dagoz. Lehenengo zatia, *Plentzia. Azterlanak. Estudios* izeneko liburuan, 246-282 orrialdeetan. Bigarren zatia, *Plentzia. Azterlanak. Estudios II*, 165-197 orrialdeetan.

Hirugarren eta azken zatia hemen doa. Eskuidatziko 136. orrialdetik 234ra bitartean dagoznanak dira. Azken bi orrialdeak zenbakarik barik dagoz. Ganera hiztegitxo bat bere erantsi deutsat, sarreraren amaieran eta sermoiak banan banan ipini aurretik. Neure arreba M.^a Carmen Etxebarriak lagundu deustu testu honeek makinaz idazten eta zuzentzen.

Renteriari buruz X. Alzibar jaunak bere, dato interesgarri gehiago azaldu ebazan gorago aitatu dodan lehenengo liburuan, 55-62 orrialdeetan. Eta gero Bonaparterentzat, A. Uriartek eskatuta itzuli eban dotrina bere argitaratu eban. Hor argitaratu arte ez nebazan ezagutzen pleitu eta Renteriaren bizitzako beste gauza asko.

Datu guzti honeek mesedegarriak dira Plentzia eta inguruko euskera ia galdua dagona apur bat hobeto ezagutzeo. Lekuko hau uste dot egokia dala horretarako.

1. EGILEA

1.1. Sarrera

1975ko udazken eta neguan eta 1976ko udaberrian «Etnografía de Amorebieta-Etxano-rako» datoak batzen ibili nintzan José Miguel de Barandiarán Jaunaren itaunak jarraituz. Esan eusten Zornotzako Epalta auzoko Torre baserriaren liburu zahar batzuk egozala. Baserri horretan Kasilda Zugaza bizi zan. Andre honen loba bati eskuatu neutsan liburu horrek begiratze-ko. Begiratu zituen eta bat eskuz idatzita egoan eta euskeraz. Berak hartu liburu hori eta era-kutsi eustan (a).

1.2. Egilearen bizitzaren barri batzuk

Liburu honen egilea Juan Cruz de Renteria zan. Lino Akesolo hasi zan bere bizitzaren barri batzuen hila. Baino ez eban aurkitu bere jaiotza agiria. Geroago Altzibar jaunak 1983-IX-

a) Esku idatzi honek badauka bere historitxoa... Aurkitu nebanian ez nintzan bapere aitua texto zaharretan eta Euskal-herriaren ezaguna dan bati telefonoz bere iritxia eskuatu neutsan. Esan eustan hoiako sermoi liburu batzuk ez eukala garantzi handirik. Eta batean itxi neban liburu hau 1982rarte. Orduan pentsatu neban XIX gizaldi erdi inguruko liburu ezezagun eta argitaratu bako batek baeukala nahikoa garantzi, ordu batruk azterketan emoteko. Eta holan ekin neutsan zeregin honi.

Kako artean agertzen diran zenbakia esku idatziko orrialdearen zenbakia adierazten dabe. Oharrak kako artean dagozan hizkiekaz azaltzen dira.

25an, Euskaltzaindian aurkeztu eban lan baten irakurri eban jaiotza agiri hori. Pedro Juan Cruz de Rentería Mungian jaio zan 1804ko irailaren 14an eta hurrengo egunean bataiatu eben (b)

Izen hau lehenengoz bateo liburuan agertzen da Santa María de Gorlizko «beneficiado» eta abade lez 1832ko irailaren 5an eta bere aurreko Jacinto Olagibel abadeagaz neste agertzen da.

Gero Pedro Krisólogo de Saratxaga «beneficiado» eta abadeagaz neste agertzen da. Hilen liburuan bere izena aurrenengoz 1832ko bagilaren 18an agertzen da. Jacinto de Olagibel 1848ko maiatzaren 11an hil zan, 68 urtegaz. Juan Cruz de Renteriaren izena askenengoz hilien liburuan agertzen da 1874ko maiatzaren 19an. Eta hiltzen da 1874ko maiatzaren 31an bat batean, 70 urtegaz. Hau da bere eriotza agiria: «Día 31 de Mayo de 1874 se enterró en esta parroquia (Górlez), el cadáver de don Juan Cruz de Rentería cura y beneficiado de ella, de edad 70 años de una muerte repentina por lo cual no recibió los santos sacramentos. Y para que conste firmo, Dionisio de Undabarrena».

Aita Uriartek beste barri batzuk bere emoten deuskuz Juan Cruz de Rentería, Gorlizko abadeari buruz bere L. L. Bonaparterenganako eskutizetan. (c).

Behar bada Aita Uriartek deitzen deutso «único escrito de aquella comarca» bere dotriña ezagutzen ebalako. Baina bere, eta A. Estartaren eretxia dotriña honen euskerari buruz ezezkorra izan zan. Eta behar bada horregaitik Renteriak sermoi liburu hau —«liburu» izena berak emoten deutso— ez eban inoiz argitaratu. Dana dala, sermoi liburu hau ezezaguna eta argitaratu bakoa izanez ganera, esan daiteke Plentziako euskera ezagutzeko lekuko hobeagoa dala, Bonaparterentzat egindako beste itzulpenak baino, hainbestean mugatuta, ez dagolako. Bestalde sermoiak literatura didaktikoa dira eta arrazoirko da eskualdeko euskeran egotea. Azkenez Rentería jaunak bere abade bizitza guztia Gorlizen emon ebalako pentsatu geinke bere euskeria nahiko bardintsua zala herriko euskeragaz.

1.3. Eskuidatziaren deskribapena

Baina liburua zelangoa da? Renteriak berak izen hori ipinten deutsalako.

200 garren orrialdean, sermoiak amaitu ostean holako gehigarri bat sartzen dau: «Liburu onek deuquesan asuntu edo escritoan aurquitutenean bida fede edo ellexa (sic) ama santeac irecasten dabean contraco gauceric declarauten da dala vorondates contracoa eta ipini espalite legues retrataric (sic) lotu. Juan Cruz de Rentería».

Kartoizko azalak ditu eta neurri honeek: 21 x 15,5 cmt. Lehenengo orrialdean izen bat eta fecha bat agertzen dira: Juan de Gortazar, 1864. Gero orri zuri bat dator eta bertan nabaritzen da «marca de agua» deritxona. Gero hurrengo bi orrialdeetan eskuidatzi honen aurkibitzen da.

b) Bateo agiria:

«Pedro Juan Cruz de Rentería

En quince de septiembre y año de milochocientos y quatro yo, Dr. Vicente María de Ybarra, Presbítero Beneficiado de estas unidas Yglesias matrices de Santa María y San Pedro de Munguía y sus filiales de Larrauri y Meñaca con permiso del cura Párroco de estas dichas Yglesias matrices Bauticé aun (sic) niño a quien puse por nombres Pedro Juan Cruz, que según la jurada declaración nació a las siete y media de la noche antecedente: es hijo legítimo de Manuel de Rentería, natural de Plencia y María Josefa de Landesa natural y vecino de ésta: sus abuelos Paternos, José de Rentería ya difunto, natural de Baquio, y Josefa de Ormaza natural de dicha de Plencia y vecinos que fueron de ella; Maternos José de Landesa y María Antonia de Goyri naturales vecinos y feligreses de esta de Munguía; Padrinos Pedro Antonio de Bolíbar y Vicenta Isidora de Bolíbar residentes en ésta a quienes advertí el Parentesco espiritual y demás obligaciones que contrajeron en cuia fe firmé

Dn Vicente de Ybarra»

c) BRSVAP, XIV, 1958, 422 y 424.

dea eta edukiak datoz. Hurrengo orrialdeak 1 zenbakia dauka eta holan jarraitzen dabe orrialdeak 232 arte. Beste orrialde bi dagoz zenbaki barik

Orrialde honeetako Idazkera eta aurrekoena bardina da baina hemen ez da agertzen ize-nik amaieran.

Sermoietan lerroak orrialde bakotxean 28-tik 33era doaz. Bain 201 garren orrialdetik 234-ra, lerroak gehiago dira: 39tik 40ra bitartean.

Egilearen idazkera oso osorik erderakoa da. Bokalen artean /eta /berba bardinean era-bilten ditu: *y*lgo, *ilteco* (2). U-rentzat *u* eta *v*Kontsonanteen artean, k-rentzat, *c* eta *qu*: deu-quelaco (1).

G-arentzat: ga, gue, gui, go, gu, erderaz legez: guisonac (2).

H mailegu berbetan agertzen da: honrrea (54) eta *horma* berban.

Nahasketa osoa dago txistudun frikari eta afrikatueta:

z: Ynos (1), meastu (2), lucetutia (2), acie (35), cetan (3)

s: zurre (2), ondazunec (54), Jesucen (55)

x: guesoa (2), caseas (34)

tz: zarzaroan (1), galzuen (1), eriocea (2), zorosat (15)

ts: aceguin (3), deuzo (8), direuco (10), eucen (49), auce (4)

tx: bacochac (8), chocho (15), guichicoa (22)

j: Elegidu, magestade (13)

Puntuaketa markak eta hizki nagusiak lege barik erabilten ditu. Berba batzuk artezean erderatik hartzen ditu: satisfacciōa, ametaco, vistea, socorre, emparetea, ovedencie, sub-ditue, varoi, (62-63)

2. PLENTZIAKO BANATASUNAREN BEREIZKETA BATZUK

2.1. Fonetika

Bokalen artean ez dago gauza berezirk gaurko bizkaieragaz konparatz. Ez dago bokal luzerik. Idazkeran agertzen danetik, diptongoak orain lakoak dira. Dana dala, diptongo ba-tzuetan *au* *eu* bihurtzen da: Deu (1), comulgeu (1). Ñ: kontsonanteen aitean, agertzen da, soinu hori egoalako banatasun horretan. ñidatzita agertzen da, nahiz eta batzuetan nahastuta agertu ñ eta n, idazlearen hutsagaitik. (d)

Txistudun frikarien artean nahasketa zegoen, mintzatzaileen nahasketa adieraziz

Gauza bardina gertatzen zan txistudun afrikatuiekaz. (e). *Angeru* forma agertzen da mailegu hitzean (167, 154), *aingeru* formaren parean, beste bizkaierako banatasun batzuetan. *Crucean* (113, 154) forma bere agertzen da hemen, beste bizkaierako banatasunetan *kurutze* eta *kurtze* agertu arren.

d) Esate baterako: ceure oñetan (150), yñes eraguin (164), erlegiño (213), oyñac (32), jaten imiñi (152), ceyñec (35), diñio (59), ondo eguiñec (59), bañó (60), eta asko gehiago. Bain agertzen dira beste honcik bere: obligacionac (60), oyne (32), ynondic (32), ecinic (177), cristinauc (150), eguinic (167), oracinoa (33).

c) Hemen nahasketa idazkeran osoa da: guisonen lelengo maezu icetea (59), nondic datocen (60), alabanzaco (59), ze zorioneoco (60), landaranazat (59), deadarres (62), zor deudena (60), penitenciaco aldaza igarorrik (155), gustis osasunzue dala (30), enzuten badeucegu (204), bere acean (150), zucen gorans yoan deiten (60), emon eucen (62), emon badeuzo (203), beragas igoaric (62), zor deuce (59). Zerrenda luzatu daiteke.

-kg- taldea idatzita behintzat agertzen da: buruecgaiti (151).

Agertzen diran sandhiak orain lakoak dira: estabela eta estauquela (1-2); espadogus, es-pada (199); euqui estabenic (201) esteucela zor (203).

2.2. Morfología

Mugatzaileen gora-beherea: a/e aldaketa agertzen da, behar bada -i- eta -u- aurrean dagozalako: arrieç gauce ascoren esaupide baga (201) veguiec (201) escritura sagraduec (1); gustiec (5); glorie (3); perligrue (2); acie (35); errue (199). Baino o + a > oa: gogoa (2) jangoico eguiascoa (202). Aldaketa hau berba hasieran bere edo berba barruan agertzen da: *yquesi, itendu, ikasi eta itandu-ren* ordez.

Deklinabidea. Nondik kasoan amaierako *k* galtzen da (f). Kaso bardinarentzat-rik atzizkia agertzen da: mendiric bera (105), beraganic (204): -ti atzizkia ere: videti (198) bertati (151). Norengandik kasurako: maezueganic (57), lagun charraganic (57). Nogaz, bizkaieraren be-reizgarria dana singularrean eta pluralean: alviste ceruticoagaz (154) emecumeacas (185). Ergatibo plurala eta nor plurala ez ditu bereizten.

Aditz laguntzailea

Oraino formak agertzen dira baina baita beste forma bat bizkaieraren barruan gaur be-re erabiltzen dana: deude (32) euden (154), d/r aldaketagaz (esan deure/euren). Laguntzailea hau agertzen da gaur bere Arratiako banatasunean eta Gernikakoan. Honetan diptongoa gal-duta: *dere, eren. Daroa* laguntzaile lez: dedique daroa (197).

Aditz soilak edo trinkoak

Aditz soil edo sintetiko honeek agertzen dira jokatuta: egon, entzun, eritxi, eroan, etorri, euki, (ibili) evillenian, ikusi, irautsi (decir) (jarion) dariola. Danak orduko Plentziako banatasunaren lekuko, baina gaur ahozkoan galdua dagoz batzuk: beraz dacuz (302), estacusgus (25) Antonioc direuco (163) bayo danzu cerutico deadar bat (19). Irautsi aditzaren geroaldi arkaikoa erabilten dau sarri: direuke: esango dau.

Aditzen aspektua

Aditz perifrástikoak ekintza ez bukatu eta errepikakor bat adierazteko *-ten, -tan* atzizkiak erabiltzen dituzte eta ez *-tzen* atzizkia: aurquituten da (63), estadue artuten (63), adoretan ba-cituen (201).

2.3. Lexikoa

Izenordeak

Euren forma agertzen da bizkaierentzat bereizgarria (61). Izenordearen forma intentsiboa izenorde arruntaren lekuan: ceuen buruecgaiti (151), ceuen seme alabac (59).

Adjetiboak

Banatasun honetako bereizgarriak: coxo (161) chiquerra (161) eta ez txiki; deunge (60, 151, 299). Beste euskal berba batzuetatik eratorriak: erri anchineco eta orainzukoetan (202),

f) Kaso honetan sarritan -k galten da, -ti, -tik atzizkiaren ordez: munduen asierati (34), lapur bacuc guisuna bide erleti aldendu («camino real» 32), deadar eguiñegaiti (32), urten eban purgatoriotti (32), caseas campotí (34), bere catedan aspiti llbreu (154), cruceti bera (149). Galdua ete egoan ba -k hau Plentriko banatasunean?

lecu ereguiec (152), bazar nastuec (58) asagoco errietan (117); sari emozalle (51); alviste ceruticoagas (154). Erderatik artezean hartuta: esti maravilloxoagas (161), erreca peligrosoa (228); ce letrasco dan ciencieri (226).

Izenak

Batzuk banatasun honek bereak ditu eta ia ez dira agertzen beste bizkaieraren 9 banatasunetan: estarrie (35) arague (155, 35, 28, 199); emacumecas (185) ayoz bat (2); yñude batec (63); maezu (59); uguesa (160); anaje (33) pipetea (37); alberriec (151); ydune (151, 154); edoi batec (154).

Aditzak

Apainduric (167-168); ytendu baric (171); yrezarturic (1-2) jasongo yaquen (59); sendatu (153); vetatu, *bete* aditzaren ordez (149); vireldu, *bialdu/bieldu* aditzaren ordez (211); villetuteco (211) eragosten deuso (226), acetuteco (185).

Partikulak

Gaurko ahozko bizkaieran erabiltzen ez diran bi datoz: *oi* eta *ece*: aurquitu oi den peligrue (176); futuric ataraco ece ebalaco (177, 170).

2.4. Egitura sintaktikoak

2.4.1. KOORDINAKETA EGITURA

Kopulatiboak *eta*, *ta* *bada* partikulekaz: emon eucen angeru batec guibela eta beragas igociric /...../, emon ayteri vistea (63). Alperric bada cansauco dire /...../ justiciecarcelan eta Maezuec escalan (60) (g).

Adbertsatiboak *baya*, *espada*, *baite* partikulekaz: eta aurquituco dire uri eta albo erriec gace ascoren esaupide baga, *baya* ez Jaungoicoaren esaupide baga (201).

Ez nigati negarric egui espada ceuen buruecgaiti (151)

Es bacarrik euren seme alabacgana, baite onen seme alabacgana bere (61) (h)

Disjuntiboak edo partikulagaz

Gurasoan vecoqui illun edo arguie gueyago dalaco umearen viocean aci on edo deun-guia ereiteco, gurasoac bere escaracean yrecasico gauce on edo charra, igaroco da, es bacarric euren seme alabacgana, baite onen seme alabacgana (61).

g) Ygaroric Abram esan dirian errietara, eta amar justo euretan aurquitu eceituelaco, Jaungoicoac auzi viurtu cituen Sodoma eta beste erriec, eta salvau Lot eta bere espousea (99).

ezarri Cristiñauac ceuen gogoa nora gure eta lecu gustien aurquituco dozue ilteco peligre (2)

ayoz bat escuetan zeyñegas ulertutene emon gure daben, estabela munduko gaucec jasten eta estauquelayaños lecu segururic, echean campean, eta guisona aurquitudan lecu gustian deuquelako ilteco peligre (1-2) gustis chiquer eta eceresa da mostacearen acie (35)

eriocea aurrera doa, zurre metu, [.....] eta veguiet zarraturic erioceac egui deu bere biarra (3)

exemplu charrecoa Herodiana (sic) eta bay bere alabea bere, ceinec escatu eban bauptistearen virue (61).

h) erleginoa [.....] zein dan compendio chiquerra verbatan, *baya* neurribacoa deuquesan misterio eta sententcientan (226)

Baya artu gure espadogus sacramento onac, pecatuen il eta condenetan bagara, esta ceruco medicuen errue, espada condenetan danan errue (199)

Esta aurquituco Maria Santissimea baño gracia gueyagoco Criaturarie mundu onetan, *baya* euren guraso Juaquin eta Anac [.....] eroan euden Maria Jerusalengo Tetmplure (60).

2.4.4. MENPEKOTASUN EGITURAK

Menpekotasun egiturak bereizteko kontuan hartuko dogu esakuntza bakotxaren adierazia, nagusi eta menpekoarena, eta horregaz batera agertzen diran aurizki edo atzizkiak, baina azpimarratz esakuntzaren adierazia. Eskuidatzi honetan agertzen diran menpekotasun egiturak honeek dira: Kausalak, konparatiboak, osagarriak, kontzesiboak, baldintzazkoak, kontsekitiboak, helburuzkoak, erazkoak, erlatiboak eta denporazkoak.

Menpekotasun egitura honek atzizki eta aditzaren bitartez egiten dira; baina baita partikulen bitartez.

Menpekotasun kausala: -LAKO + esakuntza nagusia edo alderantziz: jasoten jakalaco araco Noen casati urtenico usoari jasonecoa (34) (i)

Menpekotasun konparatiboa: esakuntza nagusia eta menpekoa legez partikulagaz:

Jarriric guisona espillu baten aurrean, gorpucen irudie presentaute jaca (sic, jacon izan behar leuke) legues, jarriric Jaunaren aurrean gure arimea, da jaungoicoaren irudie berbera. (99) (j).

Menpekotasun osagarriak: -LA; eracuciric /...../ erlegiñoa dala jaungoicoaren escutic urtenic (5) (k).

Menpekotasun kontzesiboa: -GAITI (GAITIK) + esakuntza nagusia: guisonac ez ezautu eguiñegaiti esta importa, Jaungoicoac dacuz guisonan vioza (225) (l).

Baldintzazko menpekotasuna: Aditza baldin eran, atzean daukala baldintzaren ondorioaren esakuntza:

Eta bere errazoayagas zartuco valiz Jaunaren rrevelaciñoco misterioac estudiantan, ecer es leque iquisico, eta bay asco galdu (226).

EZKERO partikula + esakuntza nagusia:

i) Esta estozue aurquituco euretan distinguietako señaleric, gustiec erioceac bardin ychi dituelaco, gustiec neurri bateti igaro dituelaco (5).

Jaungoicoaren contraco agindue zalaco, Faragonen alabeac aguindu eban yñude batec mutillau astea (63)

Chinaco salvajeant arteen estabela aurquitu, Jaungoicoaren ezaupideric esteuquen bat, ofreciduten dituelako euren sacrificioac cerueco espíritu dan divinidadeari (202)

siñisquera edo fede a aurquitu dalaco, humanidadea aurquituco le

j) gach edo trabajuren bat badator modu orretako echera, laster Jaungoicoac ezarrico dabela socorre. Toviacen echera ezzari eban legues (96).

k) Jaungolcoak [...] guisonari rrevelau deucecela etorceco demporan jasongo cirian misterioac (34-35)

bere troncotic etorrico zala mundure emacume bat (35)

zeyñegas ulertutene emon gure dabent estabela munduko gaucec jasten eta estauquela yños leku segu-ruric (1-2)

eriocea zor dabent guisonari, ondo ilteco medioac artu daguicela (3)

eta munduec dino: Jaungoicoac glorie emon deyola (3)

etocen demporatan seme alabac euren gurasoen consentimentu baga, pausoric eguin estayela (63)

l) guisonac ez ezautu eguiñegaiti esta importa, Jaungoicoac dacuz guisonan vioza (225)

cein da bada yzozao occit eta gogortuegaiti guisonan vioza, erlegiño eguiascoaren chinguerrac ucatu es-quero, verotu varic lotuco danaç (213)

Desgracias egonagaiti guisona Jaungoico guzurrecoac adoretan, es orregaiti, errazoisco dan humanida-dea, Jaungoico eguiascoaren ezaupide baga aurquitu icen da (201)

baya pecatu onegas aurquituagaiti, erriec nocic peitean igaroten ciriala Jaungoico eguiascoa adore-tan (202).

Cein da bada yzozac ocitu eta gogortuegaiti guisonan vioza erlegiño eguiascoaren chin-guerrac ucutu esquiero, verotu varic lotuco dana? (213) (II)

Menpekotasun kontsekutiboa: Esakuntza nagusia + AIN MODUTEN ZE; baya aci chiquer onegas lurrera ezarriric, ateratan ditus Jaungoicoac zustrai zendo eta errama andiec ain moduten ce, chori baten estarrie betatuteco estan aciegas egui daroas Jaungoicoac chori asco egoteko arramac (35) (m).

Helburuzko menpekotasuna: -TEKO + esakuntza edo alderantziz

Esakuntza nagusia + aditza gurarizko eran. Aditza gurarizko eran + TZAT + esakuntza nagusia.

Jaungoicoac izaitea emon badeuze erra(zoi)zoisco dan guizonari, da, /...../ gero ceruen gocetan Jaungoian (sic) betico egoteco (59).

Bacobac bada eguiñ beique aleguiñe, /...../ gure oraciño eta sacrificio santuegas alcanzau daguen aimbet laster Jaungoicoa gocetea (34).

Guc bere arerioari parcatu eta mau daigunsat, Jesucristoc, etocen demporataraco emon cituen arrigarrisco exempluec, parcaturic bere pasiño santue emon eucen judeguei (53-54) (n).

Menpekotasun modala: -RIK + esakuntza nagusia edo alderantziz. Esakuntza nagusia + menpekoa + -LA edo alderantziz. Alviste onegas iqueraturic guisona, urteten deuzu vecou eta eta gorpu gustien ycerdi oz eta larriec (3).

Eta Jose aurquitu biar servietan asagoco Errieta bere ugasa andrea ereguico falso testimoniajas, calabosoan egon biar, cate, gose eta egarrie lagun dituela (117) (ñ).

Erlatibozko menpekotasuna atzikiekaz:

-N

-NIKO (a) -NEKO (A)

-KO

Erlatibozko menpekotasuna partikulagaz: ZEIN. Eracuciric guisosan espiritusco egarrie amataten daben erlegiñoa dala jaungoicoaren escutic urtenicoa, cein dan compendio chi-querra verbatan, baya neurribacoa deuquesan misterio eta sentencietan (226) eta orregaitic urten eban purgatorioti, bere nebac ezarrico berroguei mesan frutuegas (32) (o).

Il) baya artu gure espadogus sacramentu onac, pecatuen il eta condenetan bagara, esta ceruco medi-cuen errue, espada condenetan danan erruc (199)

eta bere errazoyagas zartuko valiz Jaunaren rrevelaciñoco misterioac estudietan, ecer es Leuke iquisico, eta baya asco galdu (226) zuri fortune andiec emon baneuzucen, san eurecas pobria socorrietao (97)

m) Deuteronomio (sic), Eclesiasticu, San Mateo eta San Marcosen evangelioetan dagos deadarres: gurasoac ametaco, ain moduten ce Jaungoicoac bere urengo, gurasoac ametea gure deu. (62)

n) Escritura sagraduec eriocea iminten deu pinteruric vegui baga, guri uiertuten emoteco; ycusten establa (1)

bacobac bada eguiñ beique aleguiñe, [...] gure oraciño eta sacrificio santuegas alcanzau daguen aimbet laster Jaungoicoa gocetea (34)

ñ) eracuciric guisonan espiritusco egarrie amataten daben erlegiñoa, dala Jaungoicoaren escutic urtenicoa, (226)

o) Igao ceuen gogoagas orraco egin baten zuen gorpuec estalduric lotuco dirian sepulturetarra (4) cer bada eguiñ jaco araco aberas errietan berac gure daben gustie eguiten ebanari (5)

jasoten jacalaco araco Noen casati uretenico usoari jasonecoa ceinec aurquitu ece ebalaco ceseas cam-poti non lotu viortu casara (34)

Deporazko menpekotasuna: -(N) IAN + esakuntza nagusia edo alderantziz. Partikulak + aditz jokatu bakoa. Esakuntza nagusia batzuetan partikularen aurrean doa, beste batzuetan, atzean.

Gehien erabiltzen direnak, *ORDUKO* eta beste bat bizkaieran bakarrik agertzen dana da: *ARIK ETA*, *ARTEAN*.

San Vicenten arrebiac purgatorian egoanian beresat ecer ecin eguiéban legues (32).

Espauco gure arimeac pecatu mortalik eta bay euren zor, edo venialic imiñico gaitu purgatorian aric eta zor gustien zastispadeciñoa (sic) emon artean (32).

Orregaiti guisonac mundu onetan aguertu orduco, lelengoco bierra deu negarra (1).

Amaitzeko hiru ohar egin gura neukez. Lehenengoa eskuidatzi hau bizkaieraren banatasun baten lekukoa dala ezezaguna eta orain arte argitaratu bakoa. Ganera joan dan gizaldiko Plentziako banatasuneko material askorik ez daukagu Renteriaren dotriñatik eta sermoi liburu honetatik kanpora.

Bigarrena: beharbada Renteriak saio barri bat egin eban orduko sermolarien artean, Markinako euskeraren eredua itxita bere Plentziako banatasunekoa jarraituz sermoietan.

Eta azkenez eskuidatzi hau eskola handi bako pertsona batzuk gorde dabe gaur arte gu-re herri honetan, beste batzuk artxibo paperak pisura saldu dabezan bitartean. Beharbada ondino baserrien bateko kamararen baten agertu daitekez honen antzeko paperen batzuk.

2.5. Hiztegitxoa

A

Acututeco, (181), acetu: saciar

Alperric (151): en balde

Alviste (154): noticia

Anajia (140): hermano de hermano

Araguis jancicoa (136): Carne, contrapuesta a espíritu

Ariaza (213): arenal

Aurquituten san (151): aurquitu: encontrar

Aydeak (187): parientes

B

Baga (224): sin

C

Camañea (138): lecho

Celan (160): Cómo

Ciqueturic: (199), ciquetu: secar

Jaungoicoac munduen acierati, guisonari rrevelau deucecela etorteko demporatan jasongo cirian misterioac (34-35)

bere troncotico etorrico zala mundure emacume bat ceiñec zapaldo du eban lelengoco emacume Eva enganau eban sierpiaren vurue (35).

Eta lau mille urte garrenian Maria pecatu originalaren marchabaga munduen agerturic, ceyñec zapaldo eban infernuco sierpiaren vurue (35)

Jesusen ycen gozoa ceiñec esan gure Jaben Salvadorea (137). Ayoz bat escuetan reyñegas ulertutene mon gure daben, estabela mundo du gaucec jasten eta estauquela yños lecu segururic (1)

Cispuru (182): suspiro

Coisidu (212): recoger

Contrivuciño (181): impuesto, tributo

Corront (228): corriente de río

D

Deungagosat (179): deunga: malvado

E

Echunic (150), echun: tumbar

Eragocinsa (144): caída, rendición

Errierbestera (142): extranjero

Ereguec, (152) Lecu ereguec: cómodo

Espada portale batean (142): sino, a no ser

G

Garvitenguico (206): purgatorio

Gocetaco (184) gozatu: gozar

Gogo (156): mente

Gogoan (178) gogo: recuerdo

Goitu (139): vencer, superar

Gaiso (198): enfermo

Guzurrescoen (188) guzurreesco: falso, mentiroso

H

Hostiqueda (179): patada

I

Icel (179): enorme

Idune (151): garganta

Ilgaro (155): pasar

Imini (206): poner

Iquesvideac (208): medios de estudio

Itenduten deude (141), itendu: preguntar

J

Joan etorri (184): preocupación

Jagui san (177): levantarse

L

Lango (143): iru erregueana lango valiz: como

Laquio (194): lazo

Lotu (153) lotu salaco: quedar

M

Maminzue (200): nutritivo, substancioso

Mendiarte (187): lugar boscoso

S

Sacontazune (209): profundidad
Siñisqueria (204): creencia, fe

I

Trugoi, trugoyaren (177): trueno

U

Ugezagas, ugeza (156): pecho de mamar
Ulertuten deuce, ulertu (157): entender
Uquetu (182): negar

Y

Ychutasun (177): ceguera
Yñes (179) egitea (179), iñes egui: huír, escapar
Yreupideric, ireupidea (224): continuación
Yrecasi (205): enseñar

V

Vecoquien (137), vecoqui: la frente
Veguiretu (209): mirar
Veingo batean (165): momento, en un momento
Velarrondoco (146): bofetada
Vetatu (149): llenar
Villatuten dosue (146), villatu: buscar
Vireldu eban (147), vireldu: enviar
Votiquea (198): medicina
Vulle (179): criterio

Z

Zavalducu (194), zavaldu: difundir
Zoraqueria (190): locura
Zustrati (192), zustrai: raíz, base.

JESUCEN JAYOCEAN GANEKOA (136)

Erruquituric Abram, Isac eta Jacoren (sic) Jaungoicoa vere errien misericencias, veguiratu eucen erri oneri misericordiegaz, eta zavalduric misericordiasco ateac, eta gaur da egune Israelgo errieri prometiduco Mesias mundu onetan aguertuco egune.

Sarrera

Jaungoicoac guisonari viraldu eusquion alvisteric onena san Jerusalengo ingurutan ego-san pastoreai viralducoa eta san:

Jaungoicoaren seme araguia jancicoa jayo zala Belengo portalean; alviste onegaz igarotic pastoreac Belenera eta bertan aurquitu Jaungoicosco umea pobresaric andienean asca bateco galzuetan egoalaco, eta berau bacarric adorau euden pastoreac Mesias eguiascosat.

Erregueren batec honrretan bagaitu, esquerrac celan emon estaquigu; adisquide batec estutasun bateti libretan bagaitu, mesede au estaquigu cegas pagau; vixiteren bat yñoc emoten badeuscu estaquigu cegas cumplidu. Bada Belengo portalean dago ceruco erregua, gu honrretaco (137) bere humanidade santea; honrrau eban Adanen generaciøa, beronen naturalecea artu ebalaco; honrrau: demoniøaren poderio peti, libretan etorri salaco; honrrau,: sacramentu altarecoan arimen janarisat lotu salaco. ¿Celan bada amauco estogu berau gauce gustien ganian? ¿Celango esquerrac emon biar esteucegus, ainbet mesede eguinico Jesuceri.

Bigarren partea

Biarreco basan Jesucen aurreti joan biarca eban precursoreari aytu muturic egoanac, ceinec rrevelauco ycena, cein san Juan imintea; biarrecoa san Jaungoicosco umeari, ondo etorquion ycena angueruec ceruti ecartea. Eta au cen Jesucen ycen gozoa, ceiñec esan gure daban Salvadorea, mundu galdua, erredimiduten etorri zalaco. Jesucen ycenac ce virtute deuquen adierasoteco, biarrecoa da, Erreguen lelengo liburu, eta bertan amazazigarren capitulen dacarren historie sagradue presente imintea.

Goliat erichon filistear giganteac euquiric amenazauric Saul, eta bere erreñue, ecegoan bere contra urteteoric, ycen ecic David erichon mutil pastorear; ceiñec arturic, bere sacuen euquesan arribolatarico bat, cein jaurtiric Goliati, vecoquien acerta, eta lurrera ezarriric, Goliatec escuen euquico espataegas, evaqui eucen idune, eta libreu Saul eta bere erreñue Goliaten amenazuetati. Eta Davidec ataraco bitorie, zor jacon arrivolan escrividuric egoan Jesucen icenari. Infernuco Goliatec galduaric Adan, amenazauric euquen guisona, ecegoan munden noc urten bere contra, ecegoan noc aspiretu bere poderioa. Etorriric bada ceruti Jesucen icena, beronec atara eban bitoria eta espiritu infernuco Goliaten poderioa, David pastoreac, arribolako Jesucen ycenagas aspiretu eban legues filistear Goliat.

Adan, Noe, Abram eta Moysecen demporaco arime justoac elduagaiti ceruco ateatarra Jesucen ycenean rredimidu baric egozalaco alde eguiñ biar euden ceruti, eta igaro limbo batera, ceruco ateac, Salbadore sanac zabaldu artean. Baya dempora onetan graciasko leguean ylten dan arime justue, Jesucen ycenagas rredimiduric dagoalaco, zuchen doa ceruetara. Jesusen izenean osatutzen cituen Apostoluec mancu, eta genero gustietaco guesoac. San Pedrori escaturic limosnea araco Ellexaco ateatan, ogueta amar urtean, esquin egoten san tuliduec, direuko San Pedroc: esteuquet urre, cider, es beste gauceric zure desgracia socorrieta, baya Jesucen ycenean, alza gora, eta zoas camañaea arturic echera. Jagui, ichi muletan camañaea lepoan artu, eta osaturic doa bere echera. Ycusiric mirari au, admiretan da judeaco jentea, eta diño Pedroc: Zuec Barrabas baño deungagosat elegiduco (139) Jesucen ycenian eguinicoa da mirari au.

Jesucen icenian, igaro Martirec euren tormentuec. Ignacio martirec sarri dei eguinic Jesucen ycenari bere tormentuetan, direuke berdeguec: ¿Cetaraco ainbestean dei eguiten deuden Jesucen icenari? Erazun euzen Ignacioc: biocean dagoana, miñec eracusten dabela. Quenduric martirioagas vicie Ignaciiori, ateraric bere bioza, satituten deude, eta cenbat sati eguiñ biaza, ainbestean aurquitu Jesucen ycenia. Basamortuetan egosan anacoretac, Jesucen ycenagas, goitu arerioac iminico tentacinoac.

Eragocinsa

Gure dabenac igaro munduko trabajue paciencien, artu laguncet Jesucen ycenia; gure dabenac arerioan tentacinoetatic libreu, erabilli Jesucen icena min, espan eta biocean; guero aurquituric cerue, meresidu daigun Jaungoicoas betico pocetan agotea.

JESUS TEMPLUEN PRESENTAUCOA

Exordioa

Espiritu santo jaunaren gracias zorturic Jaungoicoaren semia Mariaren errayetan, Maria libre egoan purificacincoco legueti. Jesucristo libre egoan legues bautismuco sacramentutu Maria libre egonagaiti legue onetati, humildades presentau san, bere semiagias templure, eta Symeon profetean vitartes, ofrecidu Jaungoicoari bere seme Jaungoico, eta eguiascoa sana.

Sarrera

Acerre aurquituric Esau, berari etor / quion (140) vendicinoa, anaje san Jacoboc ayteganic artu euelaco; esauric (sic) euquen bengancea san, bere anajia yltecoa. Ycusiric Jacobac bere enaje Esauc euquen gorrotoa, Syriaco erriti, alde eguietan Mesopotamiaco errire, eta ameti, viraldu Esauri ganadusco ofrenda bien artean vaquia eguiteco gurariagas, irregalua eta ofrenda onec icen esic asco, biarrecoa san euren artean Raquelen vitartecotasune, eta beronec bacarric egui anaje bien arteco vaquia.

Esau, eta Jacoboren irudiko acerracuncea, aurquituric Jaungoico eta guisonan artean, guisonac ofreciduten eucesan jaungoicoari, vaquia eguiteco, animaliecas eguinico sacrificio, eta purificacionac, baya alper cirian sacrificio onec; alper Abraanec, bere seme bacar Isagas eguinicoa; biarrecoa san Manaren vitartecotasune, Jaungoico, eta guisonen artean vaquia eguiteco, Esau, eta Jacoboren artean Raquelen biarrecoa san legues.

Elduric Maria, bere semiagias, Jerusalera, eta ofreciduric Jaungoicoari, Symeonen vitartes, Jaungoico, eta guison san sacrificioa, aplauauric lotu cen Jaungoicoaren acerracuncea, eta baquia, eta justicie alcarreri escuec emonic —justitia, et paz osculate (141) sunt—. Ycusiric Symeonec, bere profecie cumpliduric gaurco egunes, escatutene deuzo Jaungoicoari: eroan daguiela mundu onetatic, ycuri dabelaco munduko Redentorea, eta Mariari profeticeu, gaurco egunes templuen presentauco semia, ycengo dala Martirioco tormentue emongo deuden semia.

Eragocinsa

Ofrecidu bada bachac (sic) Jaungoicoari agradable ycengo jacon ofrendea, quenduric arimeco pecature, eta eguinico penitencie eguiascoa, ceñegas apa lucauric Jaunaren acerre, merecidu daigun, beraganic betico vendeciñoa.

IRU ERREGUEN GANEKOA

Exordioa

Jeremiasen vitartes diño Jaungoicoac: misericordiosoa da ta, esperanza cendoa beregan equiric, amodio viciegas villetutene deucenenzaco, esperanza cendo, eta amodio viciegas billetu euden Mesias yru Erregueac, eta aurquitu Belenen.

Sarrera

Jaungoicoaren providencie, aragus jancirc aguertu sala Belenem ulertutene emoteko mundueri, beste icerraganic, differenteco icer bat criadu eban. Ycenic Erregue Magoac astronomu andiec, ulertu euden icer onetati, Jaungoicoaren semia aguertu sala munduen, eta cumpliduric lotu, Balan profeteac anunciauric aurreties cuquen profecie. Eta ichiric euren negocio, convenienci, (sic) iqueratu baric, vide luce, eta igaro biar dituen trajuec, (sic) icerrau directore deudela, datos yru erreguiac Jerusalenera. Eta bertan estalduric icerra ytenduten

deude; ¿Non dan jayo dan infantea? Eta Herodecec di / reuque (142) Belengo portalean, eta zuec adorauric, erdue emeti nic bere adorau daiden. Baya ycusiric Herodecen vioza Jaungoicoac, bere intenciñoa ycenic Jesus iltecoa, vorle eguinic ychi eban Herodes. Urtenic yru erreguiac Jerusalengo uriric, doas Belenera, eta bertan aurquitu Jaungoicosco umia, es palacioan, es colcha vigunen ganian, espada portale baten, asca baten, galzu bazuen ganian, asto, eta idi baten arnaceac berotutene dabela. Siñisturic bera bacarric sala Mesias eguiascoa adorau eben, eta ofrecidu urrea, mirre eta incensoa. Jaungoicoac alan errevelauric, Jerusalen baric, artu euden beste vide bat; eta emen lotu Herodes vorle eguinic. Acerraturic Herodes vorle onegas, Jaungoicosco umia ilteco, aguindu eban urte bi beranzaco varoyac yltea; angueruec ezanic Mariari, bere semeagas Egitora alde eguiteco, varriro burle eguinic lotu ce (sic) Herodes, bere erreinuti, alde eguiabalaco Mariac bere semiagas.

Bigarren partea

Andie san Abraenen (sic) fedea, Jaungoicoaren aguindus, ychi ebalaco eche, familie, eta joan erri erbestera, jaquin baric non aurquituco eban ostatue; bayo andiago san yru erreguen fedea, Jaungoicoaren aguindue euqui baric, ychi eudelaco erreñiu, palacio, corte, eta conveniencie, jaquin baric nora doacen, cer ycengo san, eta non villetuco euden ostatue. Euren fede andiegas lagunduric icerrac, aurquitu jayoco infantea, eta adorau euren erreguesat. (143) Aimbeste peligru igaro baric gure fedea, yru erregueana lango valiz, egunero visitauco guendueque Jesus, sacramentu altaracoan; bayo gueyagotan euquiric pecatuen videac, vixitetea, Jesus vixitea baño. Etorrico da Jesucen profecie gure ganera: etorrico dire Oriente, eta Occidenteeric gentilleac eta jarri ceruco mayen Abram, Ysac eta Jacobogas, eta Cristiñau cerureco eleguidu icenecoac, euquico correspondie (sic) charragaiti, jausi infernuetan.

Eragocinsa

Au desgracieu estaigun bada Cristiñauac, sari vixiteu deigun Jesus sacramentadue, ofreciduric caridadesco urrea, oraciñosco incensoa, eta penitenciaco mirrea, eurecas aurquituteco betico dan premioa.

CIRCUNCIÑOAREN GANEKOA (sic)

Exordioa

Prediquetan egoan San Bernardo Jesucristoren circunciñoan ganean, eta admiraciños beteric direuco Jesuceri ¿Certaraco berorrec circunsiñoco sacramentue Berori bada santidade, eta graci gustien autorea? Santu berac diño, bacarric zala humildadeagaiti, pecaturic euqui ecegaiti, zala pecatarien redentorea, eta eurecgaiti circunciñoco cuchilloagas eza-ri ebala bere odola.

Sarrera

Icenic Jesucristo, ayte Jaungoicoaren semia, bera san santidade, eta graci gustien autorea; pecaturic eceuquen (144) eta orregaiti libre egoan circunciñoco legueti bere ama santea purificaciñoco legueti, libre egoan moduen, pecatu originalaren mancha baga zortu zalaco. Libre egonagaiti Jesus circuncisiño legueti, humildades presentau cen legue gogor onetara, ceñiegas egui eucen, lelengoco sacrificioa bere ayteri guisonan oneraco.

Jesucristoren misterio gustietan aguertu da, bere Jaungoicotazune; encarnaciñoan, anguerue ceruti lurrera jasteagas; Belengo portalean ceruco ycer batec orientaric iru erreguiac bera adoretan etorriegas; Jordango errioan, San Juanec bauticeu ebanian, bere burue usoa jarri, (sic) eta bere aytac au de neure semia ezanagas; bere eriozan lurre iqueratu, egusquie

yllundu, eta achac satituegas. Baya circunsideu sanian ece eban eracusi besteric espada pecatariensaco amodioric andiena, Jaungoicotasanun señaleric eracusi ece ebalaco. Jesucristoc circunciñoco martirioa igaro badeu, gure amodioagaitic bacarric igaro deu; guc bere beraric icen biar deucegun amodioagaiti, circuncideu biar deuzagus arimeco potenci, eta gorpuceco sentiduec; alde eguinic sovervie, avaricie, luxurie, eta Jaungoicoa ofendidutene di-rean vide char gustietati; bayo gustis dire guichi modu onetan circuncideu gure daben cristiñauac.

Eragocinsa

¿Nos artean lucetu pasiño charrac (145) circuncideu baric penitencie equiascoagas? Gaur bada da urte barrien lelengoco egune, eta biarrecoa da arimen graciasko vici barrie aurquitutea. Ascosanco (sic) icengo da ascanengo urtea, eta gustioc elduo, urtengo estogun urteren batera: orregaitic arimeco gracie aurquituric, beragas aurquituko dogu iños aca-vauco estan zorionecko urtea.

JESUCEN PASIÑOAN GANEKOA

Exordioa

Pecature cer dan estaquienac, betor Gecemanico hortu santure, eta ycusico deu Jesus yñoen pecatuegaiti odolesco ycerdie gorpuz gustiti dariola: tormentus beterico calice ceruti angueruec dacarrela, eta eracusiric Jesuceri, direuquela: Iñoen pecatuecgaiti, araco caliz garraceco tormentuec igaro biar dituela.

Sarrera

Jesucristoc egui biar eban guisonen pecatuegaiti, guizona rredimiduteco, bere ayturen vorondatea. Elduric onetaraco demporea, zartu cen Jesus oraciñoan Gecemanico hortuen, eta oraciñoan egoala, datorquios arimen eta gorpuean igaro biar ditucen tor[mentuec] bere gogo santure: an datorquios gogora, Judacen saldute, Pedroen uquetute, discipuluec desampara, eta bacarric ysteco instantea, idolatra, hereje, eta cristiñauascoen galdulea, eta arimeco dan tormentuec ezarri eraguiten odolesco ycerdie.

Dolare, eta tormentu onegas Je /sus (146) aurquituric, datorquio Judas, eta emonic bere maesueri, mosu falso bat, iminten deu judeguen escuetan. Itanduric Jesucet: Nor villatutene dozue, direuque, Jesus Nazarenue. Eta gustiec luce lurrera jausten dire; eta bertan dasaz Jesucet alcetaco licencie emon artean. Direuque Jesucet: jagui gora, eta emen alzauric gora judeguec, bigarren direuque Nor villetutene dozue? Judeguec direuque: Jesus Nazarenue. Emen diño Jesucet: Neu nas, eta iqueratu baric eurecas eguiniko millagroac, ezarten deuces escuec, eta eroan Jesus tropel, eta virle genero gustietacoacas, Anacen echera. Anacec direuco Jesuceri: cein da bere doctrinea? Jesucet, betico humildadeagas, direuco Anas pontifice denpora atan sanari, bere doctrinea ceruticoa dala, eta aguirien yrecasicoa. Malco deri-chan judeguec emoten deuzo velarrondoco andi bet ezanic: ¿Onelan eranzuten jaco pontifice bateri? Jesucet direuco paciencie beticoagas: charto eranzun badot, esan cein den charto eranzucoa, eta ondo eranzun badot, ¿cegaiti emon modu onetako velarrondocoa? ¿Da evaqui eutzuen velarrie, bere lecuen ozaturic imiñiagaiti, onelaco mesedeac, ¿modu onetako pa-que (sic) zor deu? Anacen pretorio, edo echetic daroe Jesus Caifasen pretorio, edo trivunale-ra, non egosan escriba eta fariseo / ac (147) Jesucen contra falso testimonioa emoteco. Testiguec itanduric, Cayfasec Jesuceri: Jaungoicoaren semia dan? Jesucet diño: Jaungoicoaren seme equiascoa dala. Jesucen eranzuteagas acerraturic, soñecoad urretu, eta colera vi-cien Cayfas zarturic dino: Blasfemia andi bet ezan deu, ¿Certaraco da testiguric? ¿Cer deri-

chazue esan daben verbiagaiti? Gustiec diñoe, eriocea merecidu dabela. Entreguetan deu Cayfacec Jesus beronen contra amurruturic egosan judeguen escuetan. Elduric onetan gau tristea Jesucensaco, carcelan zarturic, igaro eraguilen deuce, vurlegarrisco gaugue (sic). Ain moduten ce diño San Bernardiñoc: iñoc estabela jaquingo juicioco egunera artean, judeec (sic) Jesucegas eguinico lozabagaqueriec gau atan, cenbat, eta celangoac cirian.

Igaroric edonos doloresco gaugue, Cayfacec vireldu eban Pilatocen pretorio, edo trivunalera., Ycusiric Pilatocec Jesus ynocente, eta errubacoa zala, eguinico esplicacino, eta artuco carguetati, libretaco gurariegas aguindu eban Jesus azotetea. Pozturic judeguec Pilatocen aguinduegas, daroe Jesus portale batera eta bertan villoxtu, eta amarrauric cendo pillar bateri, emoten deuces erruqui baco bost mille azote, eta ascaturic gorpuz gustie, jausiric lurrera, es bacarric odol precio / soa (148), baite aragui sati gorpuz sagraduoa, elduric il aguigneria yru bider flaques ozac arturic; eta infernuec asmauko, coroy elor arantza bat eguinic zartu Jesucen vuruuen, ceiñec eguin cituen yruroueta amabi sillo vuru sagraduen.

Eguinic judeguec desgarrio au Jesucegas, daroe Pilatocegana, eta Pilatocec ycusiric Jesucec eceuquela guisonan anci, eta errie beragas erruquitu sala modu atan yculi esquero, atara eban balcoira, eta bertatic eracusiric Jesus judeguei, direuke: erruquitu zaitece guison onegas, bada ya esteuco guisonan figureric. Judeguec diñoe: estago orrenzaco erruquiric. Icusiric Pilatocec errie ezala aplaquetan modu onetan diño: preso dago bere delituegaiti, eriocea zor daben Barrabas derichon guison bat. ¿Barrabas edo Jesus libreuco da? Judeguec diñoe: Barrabas, Pilatocec direuke, ¿Da cer eguingo da Jesucegas? Judeguec diñoe: crufixe. Emen Pilatocec aguindu eban Jesus inocente sana crucean crucifixeutea.

Zavalduric Pilatocen ateac urtenic Jesuces bertati, ezarten deuce cruce pizuzue; daroe Jerusalengo caleatati; tambor, eta instrumentu genero gustietacoacas, alborauric errie, batac urten balcoray (sic) (149) besteac ventanara, eta calera, eta gustiec posturic, araco Jesus uri atan palma, eta honrra gustiegas erreividuoa, bostgarren egunian deshonrrau, eta gustiec diñoe arin crucean vicie quenduteco. Urtenic Jerusalengo uritic Jesucec bere cruce astunegas eta zarturic calvarioco videan ceiñetan egoan emacume bat vioza larri dabela, cein san Maria, dacuz bere semia, eta ariñec arin beranaga joanic, estututen deu bezartean, eta pena, eta dolores vetatu, seme eta amaren viozac.

Quenduric alvorans judeguec Maria bere semiaganic, emonic Symeon erichon guison bat crucea eroan eraguiteco, ez Jesucen erruquis, espada idean yllic lotu deitean, daroe desprecio, vurle genero gustietacoacas Calvarioa (sic), ceiñatara dolores eldu san. Jesus villoxtu eta crucean iru uncegas yosi, esquegui, eta lapur bien erdien yminiric, direuke: Jaungoicoaren semia bazara, jaci baño esteuequezu crucetic bera. Iru ordu egoan Jesus agonien yñoc amparuric emon baga. Emen encomendau eban bere ama san Juaneri, prometidu ceruco erreñue. Dimas bere alvoan esqueguita egoan lapur convertidueri, parque escatu bere ayteri, modu atan imiñico judeguecgaiti, encomendau bere espiritue bere aytia beticoari, eta / (150) quedar ylce (sic; icel) bat eguinic acabuco arnazan, entregau bere arimea Jaungoicori, eta eguiñic lotu tormentus beterico sacrificioa pecatariec redimiduteco.

Eragocinsa

Pecatariecgaiti yl cen erioza, eta vicicearen jaubea, eta egusquie yllundu, lurre iqueratu, satitu edo apurtu achac. Eta pecatarien vioza es al da damuz apurtu? Bay pecatarie bay, gaur ganic es Jesucen contraco pecaturic, gaur ganic es pecatuegas Jesucen pasiñoa gueyagotan barristetaric. Damu benetacoagas echunic Jesus ceure oñetan direucegu neure Jesucristo jauna.

JESUCRISTOREN RREXURREXINOAN GANEKOA (sic)

Exordioa

Ce poza aurquituten san Jerusalengo uri, eta bertaco inguruetan Jesus crucen yllic ycusi eudenian. An ycusico cenduen, cristiñauac: Calvarioco mendiric bera etozala judeguec, es-quellara, mallu, toca, eta beste garaiteco instrumentu Jesuceri crucean yosiric vicie quendu-coecas, diñoela: il dogu erriñu, uri, eta albo erriez alvorotauten ycen dituen Jesus erichon Na-zarenue, eta artu beragasco vaquia.

Sarrera

¿Da derichazue lucero yreun ebala euren poz eta vaquiac? Es, espada berroguei ordu eldu zalaco euren gañera, araco Jesucet bere acean (151) joan cirian emacumei esan euce-na: Jerusalengo alabac, es Nigaiti negarric eguiñ, espada ceuen vuruecgaiti, bada onen ga-nera etorri biar dabe gach andiac. Eldu salaco euran ganera Jaungoicoac Isayasen vitares diñoana: alperric erreinue, erri, eta alberriac jaunaren contraco iniquidadeco videac iminico ditues, queyaren moduen Jaungoicoac deseguinic ychico dituelaco.

Alperric bada Judeguec Jesus enterraoric egoan sepulturen imiñi cituen guardi, edo ya-golac; alperric escriba eta fariseoac erosten ditues sepultura yagoten egosanac esan deyen: Jesucen gorputz santue, bere discipuluec osturic bertati eroan dabela. Bada euren iniquida-deac deseguinic ychi cituen Jaungoicoac, sepultureco arrie movidu baric, Jesus vixturic ber-tati urten ebelaco —hic rrresurrexit—

Holofernecec estuturic Betuliaco uri santue, quendu gure bertati Jaungoico eguiascoari emoten eucen adoraciñoa, gure leuke Jaungoico guzurreescoari adoraciñoa emotea; baya, bere iniquidadesco asmo deunguec Jaungoicoac emacume baten escuegas, Judit ederrac Holofernecerri ydune evaquiric aspireturi ychi cituen. Nabucodonorrecec ereguiric piller bat, be / re (152) goyen Jaungoico guzurreescoan ydoloa imiñiric, aguindu bera adoretea, eta ado-retan estabena, ycengo zala viciric laba zuten egonian zartue; baya Jaungoicoac mendiric ecarrico arri beteagas ezarriric lurrera Nabucoc (sic) ereguico pillera, Nabuco donorres (sic) idi viortu, mendico vedarra yaten imiñi, eta queya zen moduen, bere iniquidadea deseguinic ychi eban.

Judeaco escriba, eta Fariseoac euren lecu ereguiec galdu esteysan eceuden ezautu gu-re Mesias eguiascoa; gentea atan imiñiric, elegidu Jesus Barrabas baño deungosat, eta crucean vicie quendu, eta usteric artu deudela betico vaquia, dator euren ganera genero gustie-taco gacha, Jesucen virtuteagas deseguinic lotu cirialaco euren iniquidadeco asmuez. Dude-ric es euqui pecatarie, ceure pecatuen iniquidadeac, deseguin dituelaco Jaungoicoac egun baten, eriozaco orduen euren contu ciaza arturic, emongo deuzuleco zure merecidue ‘tunc redet unicuiqua secundu opera sua’.

Eragocinsa

Jesucristo vixtu basan vixtu cen gueyago yl eceiteco (sic), vixtu bada pecatarie, urtenic pecatuco sepulturetic gueyago bertara sartu eceiteco proposituegas modu onetaco rrrexurre-ciñoagas aurquitu daguizun vicice beticoa.

JESUCRISTOC CERUETARA YGON EBANEKOA

Exordioa

Ellexa ama santeac urte gustien celebretan dituen Jesucen misterioetan, cristiñauen (sic) vioza vatean poztu, eta bestean tristetu doa: jayozaco misterioa celebretan danian,

poztu, icusiric etorri zala gure arimen Redentorea. Paziñoco santuco misterioan, tristetu ycusiric Jesus crucean il sala gugaiti. Ascencinoco misterioan poztu, eta tristeturic lotuten da cristianuan vioza; tristetu Jesucec mundu onetati alde eguinic umezur lotuten garialaco eta poztu guganic aldenduagaiti, ceruen bere aytegas gure abogadu eguinic lotu salaco.

Sarrera

Goituric Jesucec bere pasiño santuegas demoniñoan poderioa, eta iqueraturic ychi judeguec bere vixtute edo errexurrecioñaas, ceruetara igon arteco demporan, sari presentau cen bere ama, eta bere discipuluec gana, ychiric euren ganera Ellexea governau, erlegino santuen acie mundu gustien zabaldutea. Prometidu eucen: eurec gana etorrico zala espiritu santu Jauna, eta berac euren miñec liberaldu mundu gustico verba generoa eguiteco, eta sendatu viozac, genero gustietaco trabajuec igaroteco. (154) Elduric ceruetara igon biar egune, daroas ama santea, eta discipuluec Olivete erichon mendira, eta emonic ascanengo venciendoa, vere oyñen señalea ychiric arri baten ganian, igon eban ceruetara, yarri aytaren alde escumati, yñoc baño gloria gueyagogas, eta lotu bertan gure abogadu eguinic; orregaiti poztu biar deu gaur gure viozac. Estalduric Jesus edoi batec, Apostolu, eta eurecas bertara yoanecoac cerure adi egosan. Zabalduric ceruec datos eurecana angueru bi, eta direueque: Galiotarrac &eren veguire zagoce oraindio cerure adi? Ygon dauen Maezuec ceruetara, berac bada prometidu deuzuen moduen, virelduco deu zuecgana espiritu santu Jauna, bere promesac beti cumplido dituelaco. Angueruen alviste ceruticoagas consolauric Apostoluec, alde egui euden Oliveteco menditi, eta igaro cenaculu, edo afal lecure. Judit emacumeac Holofernecen idune evaquiric, alabanzac emon beucesan Betuliaco uriec Juditeri, Holofernecen persecuciñoti libreu, eta Jaungoico eguiascoari adoraciñoa aurrerra bere emoteagaiti, ce alabanzac emon biar esteucegus Jesuceri, bere pasiño santuegas, infernuco Holofernecen perseculiñ, bere catean aspiti libreu, eta berac zarratuko ceruco ateac, justo dan ari / meanzaco (155) Jesucec gaurco egunes zabaldu cituelaco?

Jesucristoc bada igon eban ceruetara, infernu, eriocea, eta pecatue goituric. Guc bere ceruetara ygon gure badogu, biarrecoa [dogu] goitutea gueure arerio, demonino, mundu eta arague; Jesus (sic) ygon eban ceruetara Oliveteco mendien punteric, eta aldaz andie igaro; guc bere gure badogu igon ceruetara, biarrecoa da penitenciaco aldaza igaroric, virtuteco mendien puntera igarotea.

Eragocinsa

Cristiñauac, Jaungoicoac icetea emon badeusco (sic), da mundu onetan bera servidu, eta ceruen betico bere magestadea ycusteco, onetaraco yarraitu biar deucegu Jesucristoc mundu onetan eravillico pausu santuei: humildade, pacienci, ovedenci, caridades, eta castidadeco vide santuen, aurquitu daigun eurecas Jesus betico ceruen gocetea.

ESPIRITU SANTU YAUNAREN ETORRERACOA

Exordioa

Mesede andiec eguin eucesaan Jesusec arranzale cian discipuluei: bere escolara gueitu, Apostolu, eta sacerdote eguin, pecatuec parcatuteco eta guesoac osatuteco escuvida emon, eracuzi bere divinidadeco gloriec, Jesus errezcuiteu sanian sarritan eurei aguertu, prometi/du (156) eurecgana espiritu santu Yauna vireldutea, eta euren aurrean cetuera (sic) igon; bayo estire mesede chiquerragoac, gaurco egunes, yrugarren persona, espiritu Santo Jaunac, miñen yrudien euren ganera etorriric, eguin cituen mesedeac.

Sarrera

Jesucristoc bere discipulucet elegiducoac, cirian pobre, eta letra baco arranzale bazuc; yru urtean Jesucegas yvilliagaiti, astun egosan Jesucec yrecasico gauec gogo, edo vuruen artuteco. Badaroas Gesemanico hortu santure Jesucristoc discipulu onec beragas batera oraciño eguiten, loac artuten cituen; peligruren bat ycusiric, yñes eguiten eucen Jesuceri; emacume batec itandute (sic) badeuce Jesucen discipulue sanenz, uquetu bere Maesue. Jesucristoc ceruetara ygonic judeguen persecuciñoti libretaco, cenaculuen zartu, eta ateac yci ric bertan dagos.

Baya etoriric eurecgana, gaurco egunes, zusco miñen irudien, espiritu santu Jauna, Jesucristoc prometidu eucen legues, aurquituten dabe Salomonen jaquiturie baño gueyago, liberaldu euren miñec, munduen dirian verba genero gustietacoac eguiteco, eta cendatu euren viozac, misiño santuec (157) euquesan tormentuec igaroteco. Urtenic cenaculotic, Apostoluen vuru San Pedroc prediquetan deu Jerusalenen Jesucen Evangelioa, eta aurqui tuagaiti lecu ascotaco gentea diferenanco verba eguiten eudenac, gustiec ulertutene deuce Pedrori berac ciñoana. Mirari onegas convertidu yru mille persona, gustiec bauticeu cituen Pedroc.

Pedroen lagun cirian Apostolu, eta Jesucen discipuluec ortoxic, ecen prevenciño baric, igaro cirian mundo puntu gustietara, eta iqueratu baric goce, egarri, cartela, eta munduen asmau al leitean tormentuec, eta zavaldu Jesucen evangelioa lecu gustietan; oyñic acera vota baric, ezarri, Jesucen amodioagaiti, odola, eta martir eguinic lotu.

Eragocinsa

Cristiñauac bacochac deuquegu Apostoluec euquico misiñoa, bautismuen emonic deu quegu Jaungoicoari verbea, bera ofendidu baño lenago, viciea galdueta. Apostoluec ygaroco tormentuec igaroteco obligaciñoric espadeuquegu ygaro biarra deuquegus paciencian bacochari Jaungoicoac ezarten deucesen trabajuec, escaturic onetaraco espiritu santu Jauri bere graci, eta laguntasune, eta guero betico cerue. (158)

TRINIDADE S.S. GANEKOA

Exordioa

Fedeco lelengo articuluen siñestuten dogu Jaungoico gustis poderosoagan ceñec conservetan dituen ecer ecetati criadu cituen gauec. Arguiro bada ichasoan ondo governata doyan onciec, daroyala governetan daquien guisonen bat, veguiretu ceru, lur, eta euretaco gauec gustietara, eta icusiric ondo governa, eta ordenas aurquituten diriala gustiec, arguiro dago aurquituten dala Jaungoico yaquitu[ri] neurribacoa. Fedeac berac yrecasi bere eguiten deuscu, Jaungoico bacar baten dagosala yru persona distinta, ayta, seme, eta espiritu santu Jaunaren icenagas, ceiñen irudie deuquen guisonaren arimeac, deuquesalaco yru potencie entendimentu, memori, eta vorondatearen ycenagas, eta bacarric dalaco arime bat.

Sarrera

Aita, seme, eta espiritu santu Jauna yru berba, ceiñetan dagoan zarraturic Ellexa ama santeac adoretan daben misterio alzu, eta escutuena, cein bacarric guisonac alcanzau leique fedeco catalajoa arturic, dalaco jaungoicoac rrevelauco misterioa, baya guison arrazois goitua.

Agustin batec diño: guisonac baqui (sic) beste batec izatea emonicoa dala, arime bat deuquela, eta arimeac / (159) yru potencie deuquecela, baya arimeac yru potencie onecas,

ce moduten eguiten dituen bere eguiquerac, da guizonac erabaquiten estaben gaucea. Orre-gaiti guizonac, ecin zartu leite, bere criadorean casa santura. Jaunaren atrivuto veneragarriei adituten, zartuco valiz, galdu耶 ycengo dalaco, Luxbel, Adan, Arrio, eta beste asco galduric lotu cirian legues —Scrutator mayestatis, oprimet a gloria, Prov. 26, c. 27.

Jaungoicoa andi, eta neurri bagaco da diño Jeremiacec, eta orregaiti guizonac bere errazoyagas alcanzauco estabenai Jaungoicoa andi eta neurri baguia da, diño Eclesiasti-cuac. Eta orregaiti guizonac ecer quendu, es emon leyona: Jaungoico andi eta neurri bacoa dala diño Jobatec (sic) eta orregaiti igaroten dala guisonan errazoiti gora. Jaungoico andi eta neurribacoa dalaco; diño San Agustinec imiňi ebala bere yarlecue, guizonac alcanzanco es-taben alturen, eta bitartean argui bet dabela guizona bere errazoisco veguiecas, edonos adi-tuten acico valiz, argui onen resplandoreagas ichuturic isteco.

Jaungoicoa cer dan, eta nor dan jaquiteco, biarrecoa da Jaungoicoa Jaungoico ycen eceitea, eta guizona Jaungoicoa ycetea, eta au im / possibleco (160) gaucea dan legues, eriozaco atetic gracién igaro baric, ecin guisonac yaquin leique Jaungoicoa nor dan, eta cer dan. Ellexeagas siňisturic, Jaungoicoari alabancea emoteco, confesau biar dogu: Jaungoico bacar baten dagoala, iru persona distinta, aytia, seme, eta Espíritu Santo Jaunaren icenagas.

Eragocinsa

Sarri icusten dan gaucea da, gustis gozaro artuten ugueza umiac bere amari, veguiretu baric nondic datorren, ce colore deuquen, eta celan tormentan dan; guc bere gozaro artu biar deucegus fedeco misterioac gueure Ama dan Ellexeari, veguiretu baric errazoisco ve-guiecas celan, edo ce moduten dirian; eta fedeaegas aurquituco dogu arimeco viciea, umeac ychuen bere Amari artuco uguezagas, gorpucecoa aurquitutten daben moduen.

SAN ANTONION GANEKOA

Exordioa

San Pablok diño: gustis dala gach Jaungoico, eta guizonaren amodioa euquitea, diriala-co diferenci andicoac Jaungoicoaren aguindu santuec, eta guisonan aguinduec. Gach bada, estala imposible diño Apostolu berac, bada irecurriric anchinoco testamentue, aurquitutten da bertan Mo / yses (161) ycen zala Jaungoicoaren adisquide bere aguin[du] santuec cumplidu cituelaco, eta guisonaren adisquide, aguindu santu Jaungoicoarena cumpliduric, guisonari mesede andiec eguin eucezalaco; atara Faragonen cate aspiti, ygaro ichas gorrie, desertuen mana erichon esti maravillosoagas berroguei urtean mantenidu eta promisiňosco zorion san erriereco videan Isrraelgo errie Moysecec imiňi ebalako. Ircuren bada testamentu barrie, bertan aurquitutten da Antonio ycen sala Moysece (sic) legues Jaungoico eta guisonaren adisqui-dea, cumpliduric Jaunaren aguindu santuec, eguin bere eucezalaco guizonari mesedeac, co-xo, mancu, gor, mutu, eta guizonan arimeco, eta gorpuceco necesidadeac socorrietañ citue-laco. Bere ganian verba, equiteco biarrecoa dot espíritu santu Jaunaren gracie, eta berau al-cancetacao, imiňi daigun vitarteko bere esposa castea, ezanic ave.

Sarrera

Aguerturic Antonio mundure Portugalgo erreñuen, eta Lisboako urien Jesucristo mundu-re etorri, eta mille eta eun de larogueta amabostgarren urtean; yenic bere guresoac erre-guen troncoti etorriec, eta emon eucen bautismu santue, eta ipini bere lelengo ice / na (162) Fernando. Ichiric Fernandoc gastetako inocente dirian diversiňoac, dediqueu cen cristiňau-ren obligaciňoia iquestera, eta eurei arpegui emotera eta aurreraco demporan gramatique, fi-

losofie eta teologieco ciencien dien carrerara. Yarriric, bere estudioan perjuicio baric, velaunico santo Cristo baten aurrean, Jesucristoren pasiño santuko liburuti, atara cituen fede, caridate castidade eta humildadeco frutu ederrac, eta eurecas ichiric munduec ofreciduten eucesan honrra, estadu altu, interesac, zartu San Agustingo Lisboaco conventuen. Conventuric urrean, egonic bere gurazo, ayde, eta adisquideac, ceinzuen sari cian vistec, galarazoten eucen Jaungoicoari bere servicio santue dempora gustien emottea, alde eguin eban guardiñuen (sic) licenciagas. Zaspigarren urtean, conventu onetati, bacartade, edo desertu baten egoan Monte Paulo erichon conventure, eta es bacarric camvieu avitue San Franciscocoa arturic, baite bere Fernandoen ycena, arturic Antonioena. Icusiric bada Antonioc libre bere vu-
rue mundu, eta bere joan-etorri gustietati, estaldu bere jaquiturie, eguiéban iñocente, eta ecer estaquien bat zalacoa, eta orregaitic eguin biar cituen conventuco lego baten biarrac, hortu-
lau, cociñeru, barrendure, labanderu, eta beste genero gustiec; ychi baric oraciño, varau, eta Morti / ficaciñoari (163).

Jesucristoc bere Evangelioan eguiten dituen promesac, ecin fallau leique, eta ycenic Je-
sucen promesetarico bat humildadea ycengo dala ensalzadue Antonioen humildadea ere-
guieban Jesucristoc, ezarriric genero gustietaco graciec. Eta gracia onen vitartes Antonioc
ezatuten cituen guisonan viococo yoiltasun, edo secreto cian gaúcec, guexo genero gustie-
tacoay emon osasune, falso testimoniac arguituteco, ille vixturic sepulturati atara, eta guiso-
nen oneraco bada bere proximueri eucen amodioagaiti, lur, eta ichasoco, gausecas eguiñ mi-
rariec. Eta orregaiti Antonio san Jaungoico eta guisonan amodiocoa testamentu barri edo gra-
cieco demporan, Moyses anchineco leguian san legues.

Monte Pauloco conventu naguci sanac, desprecio bate legues, direuco Antoniori: eguiñ
daguiela comunidade gustien, sermoi bat. Antonioc direuco: estala posible berac sermoiric
eguitea, eta parcatu daguiola aguindu au cumplienteagas. Nagusiac direuco bigarrenes: ove-
dencien beyan, esan daguiela bere gogora datorquiona. Estuturic Antonio ovedenciac
aguinduegas, doa pulpiture, eta aviaduric sermoya eguiten, ceñetan atera cituen anchineco
eta testamentu barrico historie sagra / duec (164), euren capituluecas espliquetan, arrituric
berac eguinico Jaungoicosco sermoyac, *sermoyaz* esan beharko leuke conventuco jaqui-
tuncet egosan lagunec, echuten dire Antonioen oñetan, eta escatu parcaciñoa ignorante ba-
tesat, eta desprecios ordure artean veguirat ducealaco, eta Antoniori emoten deuce escu-
videa teologiaciencia espliquetaco. Es bacarric Antonioc irecasten deu teologiaciencia
espada arturic bere ganera prediquetaco misiñoa, Jesucen Evangelio santue zabaldu-
ten deu Portugal, Italia, Franciaco erreñuetan, bere miñec euquelaco genero bateco verbia-
gas naciño differenteco verba eguiten euden gustiei ulertutemoteco virtutea, Apostoluec
euquen legues.

Antonioen sermoya enzuteco, Ellexaric andiena chiquiena san, atara biar san pulpitue
plazara, eta emon bere gustie ecin enzungo euDEM. Antonioc euqui espaleu doya (sic) ulertu
eraguiteco bardinazago dagoanari cein bere ondoan dagoanari, zarraturic dendac, ychiric al-
de batera oficio, eta genero gustietaco biarrac, vide luceac, eta cansancioac iqueratu baric,
gozaldean, eta procesiñoan, eta industria genero gustietacoac Antonion evangelioco verba
santue enzuten. Eta luce erechin, Antonio prediquetan / (165) aci arteco demporeeraer aguer-
turic, Antonio penitente eguiasco eguinic, havitu laza, cilicioa garrien, zapata baga, eta orto-
xic, castidade, humildade, eta genero gustietaco virtuteagas yanciric bere arimea, eguinic
predicaciñoa bere santidadeac lagun eguiten eucela, veingo baten ycusten cirian, bere pre-
dicacinoco frutu ederrac, justoac cendoturic lotutten ciralaco euren santidadea (sic) eta gene-
ro gustietaco pecatariec, convertiduric lotutten crialaco.

Bigarren partea

Icenic Jesucristo santidadean iturrie, eta berac prediqueu judeguei sarri ascotan, bere predicaciōac convertidu baric, euren ychutasunian lotu círian judeguec; eta euren bioz go-gortuegas, quendu cruce baten vicie; eta santu gustien santu danari imiteuric, Jesucristo ostentatzen, justo, eta santu ascoc pecatariec convertiduteco gurariegas; artu euden euren ganera prediquetaco misiōo santuco cargue. Cargu onegas igaroric idolatrien zarturic ego-san pecatariecgana, eta prediqueagaiti eurei Jesusen evangelio santue, judegua legues convertidu baric lotu, eta tormenturic arrigarriecas, quendu eugen euren vicie, ceinzuec dirian ellexa ama santeac martiresat deuquesan santuec.

Antonioc alcanzau ecinic martirioco (166) palmea, gueso batec galarason eucelaco, Marruecotako ydolatracygana prediquetan yoatea erabaqui eban. Martirioa irapasteko gurariegas, doa Ecelino erichon emperadoragana, cein san Ellexearen arerio, cristiñauen verdegu, eta genero gustietaco vicioan zarturic egoana. Antonioc prediquetan deuzo Jesucen Evangelioa, pecaturic urten daguiela, penitencia equitea; baya Eceleñoc Antoniori martirioco palmea emon baga, echuten da bere oñetan, eta escatu arimeco salvaciōan erremedio.

Es bacarric Antonioc osatu cituen predication, eta sacramento penitenciegas guisonan arimeco gachac, baita bere gorpuecoa. Tullidu, mancu, mutu, ychu, eta genero gustietaco gachac osatu, eta testimonio falsorik guisona libretaco, yllec vistuagak. Cer bada egungo ece eban Antonioc, oraciōan egoanian, bere besartean jarten basan Jesus ume baten yrudien? Eta berac emon Antoniori guisonan oneraco san gaucea equiteco escubidea. Errazoi andiegas bada, estago Antonioen imagiñea aurquitu baco ellexa, es hermiteric. Lecu ascota-co hermitec dagos, beterik coxo, eta mancu círianac, bertan ychico muleta, eta reliquiecas; zuec bere santu onen devotoac ycen gure dozue, eta errazoy andie deuquezue; zuen (167) guraso, edo antepasaduec ymiñi badabe orraco altaran Antonioen imagiñea, da bere vitartes jaungoicoaganic mesederen bat alcanzatiagaiti, sicate, peste, edo beste gachen bateti Antonioc libreu cituelaco.

Eragocinsa

Icen bada zuec bere Antonioen benetako devoto, imiteu bere humildade, eta santidade-ari, eta berac libreuric arimeco, eta gorpuecoo gachetati mundu onetan, merecidu Jaungoicoa Antoniogas batean gocetan egotea.

SAN JUAN BAUTISTEAREN GANEKOA

Exordioa

Jaungoicoac, bere gogo santuen eternidadean euquico ideai, acqueria emon eucela, sei mille urtera doa; sei mille urtera Jaungoicoac sobrenatural dan cerue criadu ebala, eta bertan espíritu ucesco angueruec criadu cituela; bere servicio santureco; sei mille urtera Jaungoicoac mundu materiala ecer ecetati criadu ebala. Esan eban Jaungoicoac: eguin bedi lurra, eta lurra bere gauce gustiecas presentau eguiro (sic) Jaungoicoari; sei mille urtera doa Jaungoicoac lelengo guison sanari icetea emon eucela, formau eban lur sati bategas gorpuce, eta criadu arimea eta eguinik lotu munduen lelengo san guisona. Apainduric (168) graciegas guison au, aguindu eugen Jaungoicoa adorau, eta amau daguiela gauce gustien ganian; es eugen Jaungoicoac aguindu adorau eta ametako lurreko animali, egasti, eta ichasoco arraiñei, espada guisonari? Da cegaiti? Guisona bacarric dalaco Jaungoicoaren ancecoa, errazoisco, eta egusquien aspien dagosan criatura gustietan andi, eta miragarriena.

Sarrera

Bi mille urtera doa Jaungoicoac guisonari imiñico aguindu santue presente euquiric, araco Zacarias, eta Isabelen seme Juan, ychiric guraso, eta mundocon honra eta bertaco gaunce gustiec, zaspi urtecoa san denporan Palermoco desertuen ogueta bost urteco penitencieguin cituela. Bere oya, lur gogorra; bere jatecoa, mendiec emonico frute mingoza; bere es-talquie, camello baten azala; bere verbia, Jaungoicoagas oraciñoan egotea; bere diverciñoa varau, cilicio, eta mortificaciñoa. Zabalduric bere santidadea Jordango inguruetaen datos Ju-diati comisiñodun bazuc jaquiten mesias eguiascoa san. Itanduric Juaneri danenz Mesias humiltasun beticoagas, eranzun eucen, ataraco comisiñoa ecarri eudenari, estala Mesias, espa-da desertuen diadar eguiten dabent verbat [verba bat] baño, cein dignu estan Mesias (169) eguiascoa zapataco uguela bere ascatuteco.

Modu onetaco penitenciegas preparauric, Juan pecaturic eguin bacoa doa Jordango inguruetaen egosan uri, eta alvo errietara pecatariei penitencie prediquetan. Convertiduocao bauticeu cituen Ayta, Seme, eta Espiritu Santo Jaunaren icenian; bayan convertidu bacoai, esan verba iqueragarrie: demoniñoan seme, eta vivora castac: derichasue iñes eguingo do-zuela, egun baten Jaungoicoaren juicio iqueragarriti?

Bigaren partea

Azacabaric emon espadeuzo Juaneri predicaciño general eguiñicoac, bertan pecataria sana, icentauen ezalaco; azacabea, martirioa ecarri eucen predicaciño particularac, pecatarieri arpeguian bere pecatue iminteac. Ycusiric Herodes erregua pecatuen saconduric egoala, eta bere pecatuec erreiñue escandalizaric (sic) euquela, doa beragana eta berari bacarrean prediqueuric direu: urtenic pecatuti, ychi daguiela licitu echacon emacume emastesa sat deuquena, eta emon daguiola Jaungoicoari bere pecatuen satisfaciñoa. San Juanen particular san predicaciñoagas, acerraturic Herodes, carcelan zartu eban Juan, cate cendoac ezarri, eta goce eta egarrien artean (170).

Modu onetan Juan ychiric, Herodecet celebretan deu bere jayozaco egune, preparau genero gustico jatecoa, eta edatecoa, ecarriric convitera erreiñuco principal san gentea. Bas-cal ostean Herodianac aurrescue eguiñic, escatu San Juanen vurue entreguetaco. Noc usteko ece eban Herodecet bere egunian emon eceucela libertadea preso egoan Juaneri? Pecatu batec beste bat ganera dacarrena legues, lengo pecatuen ganera, egui eban beste iqueragarri bet, Herodianari gusto emoteco, San Juanen vurue Herodianari entreguetaco aguinduegas. Biarreco san bada Zacariacec, ume san denporan, bere semiari profeticecuoa, cum-plidutea. Berdiguec (sic) ydune evaquiric San Juaneri, entreguetan deuce plater baten Herodianari, bere jancean premioraco; eta Juanen arimea, martirioco palmeagas, ceruen zartu.

Eragocinsa

Zorionearia dala diño Jaungoicoac justoan eriocea, orregaiti zorionearia Juaneri idune evatea, justo, eta santu ycenic, aurquitu ebalocon betico dan vicicea. Zorigaistocoa, diño Jaungoicoac dala pecatarien eriocea, pecatariec icenic Herodes eta Heradiana zorigaistocoa san euren eriocea. Bata tripec ustelduric, eta arravies, Juan yl sanic laster il salaco, eta bestia sey erraldo baten ganian yanzan yvilliric, bere veteco silloa sey erraldoien (171) eguinic, ydu-neric esquegui, dandillesca, ceru, eta lurrec amperuric emon baric, erioza cruela eguinic, biecz zorigaistoco dan vicice beticoa aurquitu eudelaco. Aurquitu gure badogu zorionearia dan eriocea, biarrecoa da arimeco santidadea aurquitutea, ceiñegas aurquitu doa vicisa beticoa, ta betico dan zorionea.

SAN PEDROREN GANEKOA

Exordioa

Jaqin gure dabenac ce amodio deuquen Jaungoicoac bere servicio santuen vici diria-nenzaco, igaro baño esteuco Pedroen viciceco historiera, eta bertan icusi deu (sic) Pedroc amau badeu Jesus, amodio orregaiti Jesusec amau ebala Pedro; bere lagun cian arranzale-an vuru eguiñ ebalako; eta berari bacarric Ellexaco gilceac entregau eucezalako; goz (sic) onetan ulertutene emongo dodan moduen. Baya, ave.

Sarrera

Igenic Jaungoicoa guisonari izaita emonicoa, berac bacarric deuko guisonari jarraitu daguiola ezateco escuvidea. Cumpliduric guisonac Jaungoicoaren dey, eta jarraituteari, Jaungoicoac deuko, guison modu onetacoa, premietaco escuvidea. Aurquituric Pedro eta Cefas arrainzuen, Jesucristoc esan eucen, berari jarraituteco. Ytendu baric Pedroc, cer emongo eucen berari jarraituteagaiti, ychiric chalupe, eche, familie, eta euquen gustie, doa Jesucen acean. (172). Ezanic bada cristiñauri Jesucristoc Pedrori ecenecoa (sic) —sequere me—, bacochac dequegu berari bacarric jarraituteco obligaciñoa. Ichi ecin badire mundojoan etorriec, Pedroc ychi cituen legues, vicicea eroateco biarrecoac dirialako, biarrecoa da Jesucristori bacarric jarraitutea, gure badogus cumplidu cristiñauac, bautismuen eguiñiko promesac.

Biarrecoa gurazoac euren seme alabac Jaungoicoaren vildur santuen astea. Igaroric egun baten Jesus, bere discipuluecas Jerusalenera, direueque: neure discipuluec, esuste ne-re acean etorri bazarie, etorri zariala mundu onetaco convenienciac gocetan, espada neuc igaroeo dodan caliz garraceco tormentuec igaroteco, goce, egarri, cartela, persecuciño, eta munduec asmau aldeizan tormentuec igaroteco. Onetaraco vorondate, eta valoreric esteu-quenac, alde eguiñ daguiela niganic.

Enzunic Pedroc Jesucen platiuea diño: beroren verbac deque betico dan vicicearen sentencie, euretatic alde eguiten deuenac, ecin aurquituco deu viciza beticoa. Judea gustie beroren contra badator bere, seculle alde egingo estot berorreganic. Alper cansauko da mundu gustie, eta berorri prometidu, munduec asmau (173) al deisan tormentuec beroren amodioagaiti igarotea. Amodio au eracusi eban Pedroc Jesucen contra etorren judegu Malco erichonari, velarrie evateagas. Beste discipuluec ycusiric judeguec etocela armacas Jesus coisiduten, yñes eguiñ badeude, Pedroc ece eban ychi, bere maizue, peligru onetan, berari eucen amodioagaiti.

Jesucristoc profeticeuric euquena, Pedrogas yason basan, ollerrac yru vider cantau baño, bere maezue uquetutea, san Jesucec berari emon biar eucelako pecatuec parcatuteco potestadea. Calaco pecatuec parcatuteco potestadea eta beregana confesetan etozan peca-tariecas erruquie euquiteco; ycusiric bera Jesucen escalan egoala, pecatuen jausi basan, es-tala cetan iqueratu, mundu galduco escalan, bestiac pecatuen jaustea.

Pedroc Jesuceri jarraitu, eta bere amodioan igaroco trabajuegaiti, Jesucristoc Pedrori eguiñico mesedean ganean da bigarren partea. Yaquin gure bada Jesucristoc celan corres-pandidu eucen Pedrori bere jarraitu, eta berari eucen amodioagaiti, jarraitu baño estago asuntu onen ganeko historie sagradueri; elegiduric Jesucristoc bere discipulu Pedro, eta be-re lagunec lelengoco mesede Jesucristoc Pedro (sic) eguiñicoa san: Pedro euren vuru egui-tea, eta Jesucec (174) Pedro baric pausuric eguiñ eceitea: bada Pedroen aurrean vixtu eban Jairo erichon guisonen alabea, berari eracusi Taborreco mendien, Jesucen divinidadadeac eu-quesan gloriec; bere aurrean vixtu Lazaroen gorpuz sepulturen ustelduric egoana; Pedroen

aurrean zartu Jesus Jerusalengo urien honrra andiegas; berari eracusi Gesemanico hortu santuen, Jesucen arime santeac euquen larritasuna, Pedro larri dago neure animea eriocea igaro artean «tristis est anima mea usque ad mortem»

Baya gustien ganaco mesedea san, ezanic Jesucristoc Pedrori yru bider: ametan dabenzen, eta eranzunic Pedroc: berorrec ezautu, eta icusiric gisonan vioza ondo daqui ametan dodana, emotea Pedrori, ceruco gilcea eta egui Pedro Iurreco Jesucen vicarioa, pecatuec parcatuteco esin videagas, ezanic Pedrori: zuc parcatutene dozuna, ycengo da parcatue cieruen, eta parcatutene estozuna esta parcatue ycengo ceruen. Emon eusquin mesede, eta facultade andiogoric mundu onetan Pedrori Jesucec? Ecelan bere es, ymiñi ebalako bere lecuen mundo onetan Jesucec; bayo ece eban ychi desamparata Pedro cargu gustioc emonagaiti, carcelati, angueruen vitartes, Pedro / (175) preso egoanian libreu bere euelaco, eta mirlari onegas mundue admireta lotu zalaco.

Eragocinsa

Jarraitu Jesuceri Pedroc jarraitu eucen legues, bacocharen obligaciñoco trabajuec cumpliduric, eta dude baric zuen trabajuen premioa ycengo da ceruetan Jesus betico ycusiegas.

SANTIAGOREN GANEKOA

Exordioa

Diche andie da cristinauc (sic) Jaungoicoaren gueye euquitea, dice onegas aurquituten gara cristinauac bautismu santuegas bere seme adoptivo egui gaituelaco. Baya diche anadioga da, bautismuen Jaungoicoan eguiñico promesac cumpliduric, Jaungoicoan gueyeri jarraitutea Santiagoc Jesucristori promes eguiñe cumplidu eucen moduen. Promesau cumplidiruc bada Santiagoc, Apostoluen artean lelengo bere odola ezarri eban, goz onetaco sermoyan ulertutene emongo dodam legues. Baya onetaraco, ave.

Sarrera

Ondo equien Jesucristoc, guisona erredimiduteco, crucean vicicea emon biar ebana: ondo equien, bere erlegiño santea fundetaco biarguiniec biar cituela. Egun baten Genezaret erichon iches basterrerra elduric, onetaraco elegidu cituen arranzale bazuc, eta eurecas yru urtean ivilliric (176) emon eurei pecatuec parcatu, bauticeu, ogui ardauauc consegrau eta bere doctrinea mundu gustiti zavaldujeco potestadea. Andiec bacirian arranzale onec Jesucegas egosan demporan igaroco trabajuec, ecirian chiquerragoac, Jesus eurecganic alde eguinic, igaro biar cituenac sarriten Jesucec eurei esan eucena legues: ni banoa, eta zuec tristetu, eta mundue alegrauco da, uste ycengo dabelaco, mundutarrac, zuei perseguidu, eta zuec tormentuan yllic, mesede andi bet egungo dabela munduen.

Jesucristoc ceruetara igonic, arranzale onec egosan, pastore baric ardie aurquiu oí den peligruen; semia bere aita baric aurquiu oy den tristesan; eta esposoa yllic, bere esporea aurquiu oy den soledadean. Egosan jaquiturie baga, Jesucristoc emonico misiñoa mundu gustien prediquetaco valore baric, misiño santuec, bere ganian euquesan trabajuec, igaroteco, cer egui ecean, eta cenaculuen ateac zarraturic. Baya etorriric euregana, zusco miñen yrudien, espíritu Santu Jaune, cer jasoten dala derichazue?. Apaindu euren entendimientuec ceruco jaquituriegas; liberaldu euren miñec munduen / (177) dirian genero gustico verbia eguiteco, eta sendatu euren viozac munduko genero gustietaco trabajuec igaroteco. Urtenic cenaculutic, gracia onecas, doas banan munduko puentetara Jesucen Evangelioa zavalduyen.

Euren artecoa san Santiago, eta beroneri tocau egun Judeaco erreinua prediquetaco; yenic Jesucristoc Santagiari emonico ycena trugoyaren semia, trugoi baten iceltasunegas prediqueu eban Judean Evangelio santue. Trugoyac votaco centelleac apurtutene dituen legues gauceric gogorrenac, alan Santiagoan (sic) predicaciñoac apurtutene cituen pecatarien vioz gogortuec eta arime asco ecarri Jaungoiko eguiascoaren ezaupidera.

Icusi ecinic Erreinu ataco Emperadore, eta governadoreac, euren escola falsoti alde eguiten gentea, jaungoiko guzurreescoa ichi, eta jaungoiko eguiascoari adoraciñoa emotea, jagui san persecuciño andi, eta icaragarrie, Santiacog prediqueu eban, doctríñe, eta erlegiño barrien contra; persecuciño onetan yl bere eunden, arrique, Esteban, eta beste martir asco.

Icusiric Santiacog persecuciño onegas fruturic ataraco ece ebela bere Evangelio doc-tríñe santuec, vioza vigundu biarrean, gogortu crialaco / (178) vegiraturic Españaña egoala ychutazun, eta ydolatrien zarturic, Jesucen ezaupidea bertan zavaluteco, dator Españañeco erreinure, eta bere lelengo verbia san: vaquia suecan, es nator zuen ondasunen ville es zuei ceuen honrac, eta dignidadeac quenduten, espada zuen arimen ville. Zuei parte emoten, celián yl cen mesias eguiascoa, ceiñec rredimido daben mundu galduric egoana, eta ychi zuec salvetaco medioac. Adorau eguiizue izaitea emon deuzuen Jaungoiko eguiascoa, ychiric al-vora, lurreco dirian gizonesco Jaungoicoac.

Prediqueuric Santiacog Jesucen evangelioa Asturi, Galicie, Rioja, Nafarroa, eta Aragon-go provincietan, eldu bere san Zaragozaco Ebro derichon uren ondora, eta merecidu eban, aguertutea Maria Santissimea aragi mortalean, oraindo vici salaco, eta beronec sendatu Santiago bere misiñoia aurrera eroteco, eta prometidu Mariac, Españaña bere amparuen artutea. Mesede au, datocen demporatan, gogoa munduen egon deitean, agindu Santagiari, aguer-tuco lecuen egun daguiela ermité bat, eta bertan imiñi daguiela, cerutic angueruec ecarriko jaspesco pillera, ceiñen ganian aurquitutene dan manaren imagiñea, ama / (179) virgiña pillar Zaragozaco icenian. Cendaturic Santiago manaren vixiteagas, savalduric Jesucen legua, ezarriric lurrera idolatrie, eguiñic Españaña deliciasco paradizue, ordendu obispo, eta sacer-doteac, ychiric euren ganera Jesucen erlegiñoa prediqueu eta oñean euquiea, igaro san ba-rriro Judeara martirioco palmea irepasten.

Bigarren partea

Igaroric bigarrenes Santiago Judeaco erreinue, yenic Trugoyaren semia Jesusec esan euce (sic) legues bertan egun biar cituen, bere predicaciñoagas, trugoi batec egun daroacen operaciñoac. Verba ycel, eta iqueragarriecas direueque judeguei: zuec Barrabas baño deungagosat crucean yl cenduen,. Jaungoicoaren seme aragus janciric mundure etorriko, viztu cen yl cenduenic yrugarren egunian, eta ygon ceruetara. Demonijoan seme, eta bivora castac derichazue yñes eguitea, egun baten, berac zuecas euquico daben juicio iqueragarriti? Ecelan bere es. Modu onetan prediquetan egoela, judegu ychutuec ezarten deuces euren escu sacrilegioscoac Santagiari, eta preso arturic, cateacas amarrauric, quedan, vulle, eta blasfemie iqueragarriecas, velarrondoco, hostiqueda, eta arrastaca, doroa Herodes Agripa (180) erichon Judeaco erregiagana. Pototuric Herodes presa onegas, Judeguei gusto emoti-co, causeric formau bario aguindu Santagiari ydune evatea. Quenduten deuce vicie Santagiari, eta bere eriozan jasoten da terremotu iqueragarri bat Judeaco Erreinuan eta iqueraturic lotu Judeaco gentea.

Il san bada Santiago bere maesuec emonico misiño santue prediqueu evalaco, ezarri eban bere odola, Apostoluen artean lelengo, eta aurquitu martirioco palma ederra, beragas jarteko ceruetan amabi tribuen vuru eguiñic. Il san Santiago, baya esan yl Españañas asturic egoteco, ceruti Españaña bere amparu baric egoteco, ascanes ulertutene emongo dan moduen.

Españolac, bizcaitar nobleac, ceuen vicia baño, ceuen erlegiño santea gueyagotan deu-quezuen cristiñauac, gure ayta, eta maezu san Santiago yl cen; baya Santiago illegaitic, Es-pana lotu ce (sic) bere proteciño eta amparu baga? Derichazue Santiago astu zala bere oyu aagraduecas santifiqueu eban Españeagas bere min sagraduegas, demoniñoari yñes era-guin, eta Jaunaren ezaupide eguiascoa zavalduco Españeagas? Es cristañauac, es; bada yl-teco demporan, / (185) aguindu eban bere gorpuz sagradue Españeara ecartea, eta guiso-nac ecarri ecin euelaco, Judeaco governadoreac eragoci euelaco, Jaungoicoaren escu po-derosoac datar, ichasoac millagros, Galiciaco provinciara ecarri ebalaco. Provincie onen vu-ru dan Santigoco Catedralian aurquituten da Santiagoan (sic) gorpuz sagradue gaur artean, zor jacon veneraciñoa españolac emoten deuceala. Ceiñen amparuac España agarena eri-chan guison amurrtuen persecuciñoti, Santigoc Españeán libreuco persecuciño gustieco ezateco, biarrecoa da, egun gustie, eta orregaiti zuen atenciñoa larregui molestau eceiteco, bacarric esango deuzuet, Ramiroen demporan Santigoc Españeari emon eucen amparue ber (sic) presenciegas, yllic begoan bere.

Dempora andien Españeac paguetan eucen Marrucuen errenguari trivuto, edo contrivuci-ño infamesco bat, cein san urtean bein eun doncella, eun birgiñe Marrucuetara viraldutea. Sufrido ecinic Ramiro, errengue denpora atan sanac, eun doncella bere erreñuti atara eta ozo amurruen escuetan imintea, euren pasiño deunguec, acetuteco, doncella cirian emacume-cas; sufrido eciñic eun doncellac, euren guraso, eta familieti alde eguiten euden demporan, ezarten cituten / (182) negar, cispuru eta deadar, ceinzuen negarrac apurtuten cituen viocic gogorrenac. Sufrido ecinic gurazoac euren alabac, ataraco entreguetan cituen demporan, euquico sentimentuec Ramiroc uquetu eucen infamesco san trivutoa paguetae Marruecotaco Erreguari, eta declarau guerra.

Icusiric Marruetaco errengiac faltau jacola acetuteco ardi mansoa, dator amurrus, eta exercitu andiecas Abderraman erichon Marrucuen generala Españeara. Jarriric aurres, Ramiro, eta Abderramen euren exercituecas igaro batalla bata besteari emotera. Ycenic Ramiron exercitue gustis chiquerra, galdu acciñoa, edo batalla. Dolores, eta gauguec lagunduric rre-tireu cen Ramiro bere genteagas Clavijo erichon mendire.

Estutasun orretan jarriric Ramiro gauges oraciñoan ceruti aguertu equion Santiago eta direuco: Ramiro arturic animue, eta Jaungoicoagan confianzea imiñiric, deuquesun gentea-gas, urten eguzu batallera, eta neu ceuges icengo nas. Alviste onegas pozturic Ramiro, par-te emonic bere general, eta tropeari, Santigoc ceruti ecarrico embajadea; cendaturic modu onetaco zorioneço alvisteagas, urtenic batallera, agurturic Santiago, / (183) deseguiñic lotu cen Marruecotarren exercitue, ychiric yllic Santiago bere saldi zurien aspien, yrurogueta amar mille Marrucuen tropacoac. Amparu onen erretreatue, deuquezue altara orretan, eta veguire ondo berari esquerrac emonic eguiñeco mesedeagaiti, bada berari sor deuzo Españeac eu-quen trivuto infameti libretea. Zuec doncella zarienoc Santigoc libreu espandenduesan (sic) trivuto onetati, dude baric, galdu ycenic zan Marruecotaco ozo amurruen escuetan, orregaiti ycen biar zaria Santiagoen benetaco devotoac.

Eragocinsa

Santiago da bada gure aita, berac ecarri eusculaco fedea; gure Maezu, berac Españeán irecasí ebalaco cerureco bidea; eta bere amparue, berac libreu eta libretan gaitulaco gach genero gustietati, anchineco leguijan Moises batec Israelgo errie libretan eban legues.

Bere y cena davil soldaduen miñean, batallaren bat asten dan denporan, bera proctetore-sat artu oy delaco. Escatu bada Santigori, conservau, eta zavaldu daguiela mundu gustien guri berac ecarrico erligiño santea, defendidu daguiela arenó gustietati, eta anparau gaicela

orein, eta eriozaco orduen gure arimec salvetaco, eta beragas ceruen Jaungoicoa betico go-cetaco.

SAN ANTOLIN GANEKOA

Exordioa

Esautuco valiz cristiñauac ce valio andicoa dan, bacochar geure gorpucetan deuquegun espiritue, cein den arimea, es guenduque euquico beste gogoric, mundu onetan, espada bera salvetaco gogoa, baño albora ichiric mundu onetaco ecer valio esteuden joan eterri gustie.

Jaungoicoac Egusquien aspien izatea emon deuchen criature gustien ganian da arimea, dalaco berau bacarric, Jaungoicoaren yrudi, edo ancecoa. Jaungoicoac criaduric lurre, eta bertaco gaúce, euren poderioa emon eucen bacarric, arimesco dan guisonari; egun baci-tuen ceruec, da arimeac, bertan Jaungoicoa gocetaco; egun baci-tuen Angueruec, da arimec jagoteco. Jaungoicoac artu badeu guisonaren naturalecea eta emon vicicea, san arime gal-duric egosanac rredimiduteco; orain bada arimea da, ceru lurre baño, valio andiagocoa, beronegaiti criaduec dirialaco.

Ezauturic gaur veneratu dogun santuec, ce valio andie euquen arimeac egun cen mun-due baño andiago, bertaco gaúce gustie oyñespico gauzaren moduen despreciau cituela-co, infernue yaquitunago, bere lazuetat alde eguiébalaco; eta bere gorpuce baño go / gorra-go (185) varau, mortificació, eta tormentuegas aspiretu ebalaco; eta bacarric villetu bere arimea eta beste bazuenac, salvetea; goz onetaco sermoyan ulertuten emongo doda (sic) le-gues baya onetaraco biarrecoa da, ave.

Sarrera

Icenic guisonac euqui aldeyen negocioric andiena, arimea salvetea, veguiretu viar deuzo astiro, ce valio deuquen arima gorpuecan estalduric deuquenac. Fedeac eracusiric arimea, bere pensamentuegas, igaros doa Jaungoicoaren aurrera, eta icusiric ce gloriec deuquesan Jaunaren servicioan, mundu onetati alde eguiten deuen arimeanzaco, despreciauten ditus mundue, eta bertaco gaúce gustie. Cerure veguireturic Ignacio Loyolacoac diñoan: ce ece, eta ecer eza da mundue, eta bertaco gaúce gustie; arimea doa fedeac irecasiric, bere pen-samentuegas infernure, eta icusiric Jaungoicoac castiguetan dituela, pecatuen il cen arimea, yñes eguiten deuzo demoniñoan lazuei, eta egun Jaunaren siervo benetacoa.

Antolin san erreguen odoleti mundure eterrica, bere gurazoac cristiñauac ycenic, emon eucen bautismu santue, eta lotu umezurz, eta gureso baga, zaspi urte cituen demporan, eta orregaita joan biar eban, bere osa / ba (186) Teodoro erichon erreguanitutelara, edo ondora, beste amparuric eceuquelaco. Teodoroc adoretan cituen guzurrezco ydoloac ydolatrien zar-turic egoelaco, eta emen aurquitu Antoli gastea, bere arimea gal-duteco arrisquen, eceuquelaco noc yrecasi ce valio andicoa san arimea, zuec cristinauac deuquezuen legues, Ellexa pul-pitu, confesonario, eta zavillen lecu gustien, noc irecasí ceuoc gure ycenic arimeac ce valio andie deuquen.

Antoliri estutazun onetan, espiritu Santu Jaunac yrecasi eucen ce valio andie deuquen arimeac, beste dempora baten Apostoluei yrecasi eucen legues, eta cendatu Antolin (sic) vio-za bere osaba paganu sanac, ymiñico eucesan persecuciñoac paciencien igaroteco. Espiritu Santu Jaunaren argitzunegas, eta yques vide santuegas, jarriric oraciñoan Jaungoicoaren aurrean, atera eban Jaungoicoaren anditazunean esaupidea, bere misericordie, eta guiso-hanzaco euquen vondadean esaupidea, eta berari zor jacon amodiogaiti, bera ofendido baño lenago, vicicea gal-duteco esaupidea.

Etoriric Teodoro, Antolin (sic) santidadeti ezaupidera, bere loba cristiñau (187) zala, estu artu eban bere loba gastea, ychiric cristiñau ycteoa, ychiric Jesucen erlegiñoa, adorau danguela bere echean egoan jaungoico guzurreesco-Idoloa, espalbere bere ganera ezarrico dituela, cristiñau dirianenzaco deuquesan castigu eta tormentuec.

Ycusiric Antolic emen galdu biar ebala bautismuco gracie, adorauric Jaungoico guzurreescoa, eta galdu betico bere arimea, alde eguietan, beste dempora baten Juan Bautisteac Palermoco mendi artera egui eban legues, Salerno erichon mendiarte batera eta bertan igaro oguetabi urte, oraciño, varau, mortificaciño, eta penitente eguinic. Yaquinic Antolic, es bacarric salvau biar ebala bera, baita proximue bere, bazamorturic alde eguietan Erromara, eta ycusiric bere santidadea, ordendu euden diaconaduco ordea sagruegas.

Bigarren partea

Arturic ordea sagruegas Antolic, apostoluen misiño santuco cargue, ygaro san Franiato Tolosara, bere aydeac ydolatriaric atera, Jaungoico eguiascoaren ezaupidera ecarteko egarriegas, lagunduric predicaciñoari mirariec, Moises bateri lagundu eucen moduen, Antoli, bere escuco paluegas, ach (188) baten golpea emonic atara eban iturri eder bat eta beragas, gaur arte consolauric ychi uren faltan trabaju asco euquen gentea. Mirari onegas, eta predicationagak ecarriagaiti Jaungoico eguiascoaren ezaupidera gente andie, esan convertidu bere ayde osaba Teodoro, ceiñec jaquinic, bere loba dabillela Jaungoico guzurreescoen ydoioac lurrera ezarri eta euren lecuen Jesucen erlegiño santea zavalduen coisiduric Teodoroc bere loba Antoli, calaboso baten sartu, cargau cate, eta grilluecas, eta goce, eta egarriez yl daien ecer emon eceiteko aguindu eban. Zaspigarren egunean, preso imiñiric, eta usteric Teodoroc, zaspi egun asco ciriala goceac eta egarriez ylteco bere lobeak, ylic topatuko ebalako pozagas, doa calabosora, eta bertan aurquitu eban Antoli, cerutico argui betec calabosoco ylluntasune arguituric, Jaungoicoari alabanzac emoten. Eta direuco bere osaba san Teodorri: Neure osaba, uste ycen dozu, goces eta egarriegas ni ylic, zaspigarren egunian calabosoan zarturic, aurquitutea? Jaquin egui zu Jaungoicoac, bere criaturec, es bacarric mantenietan dituela oguiegas, baite bere graciegas Jaungoicoagak aurquituric, estago ecen faltaric. Echacan falta (189) Daniel bateri, goces egosan leo artean lesoa zarturic egoan demporan, esta bere Jonaceri ychasoco ondarretan arrain baten barruan egoan demporan; eta es Babiloniako yru mutil gasten, zu iqueragarri bategas vizturic egoan carobien zarturic egosan demporan; eta niri bere echat falta ycen, Jaungoicoaren laguntasune, calabosoan egonico zaspi egunetan, bere graciec mantenidu nabelaco.

Acerraturic Teodoro bere loba viciric ycuri, bere verbac enzun, eta echicerie dala, bere lobac daravillen gustie, barriro zartu eban calabosoan, eta Teodoro guerra batera joanic, bertan bere vieie galdu eban. Jaungoicoac bere siervo san Antoli, beste dempora baten Apostolu San Pedro calabosoan cateacas egoana, angueru bategas librea eban legues, alan angueru bategas librea eban calabosoti, eta icusiric Antolic Jaungoicoac yrugarren aldiz eguiñico mirariec, esquerrac emonic mesede onecgaiti beragan confiancea imiñiric, igaro san Pamiaco bacartadera, ceiñetan lesoa baten zarturic, egun penitente goce, egarri, mortificaciño, oraciño, eta obra onac egiñic. Mendiatar evilcen casadora bazuen chacurrec lesoa aurquituric Antoli, (190) ecelan ecede aldendu bertati, eta Yoanic bertara casan evilcenac, dacusde Antoli, eta daroe, judeguec Jesus, Anas eta Cayfacen aurrera eroan eben moduen, desprecio, barre, eta burlen erdien, Antoli lencuzu, cein Teodoron urrengo tronuen zartu cen Galiciano erreguan aurrera.

Ycusiric Galacianoc bere lencuzu Antoli, ortoxic, bere gorpue (sic) estalduteco euquen soñecoa satituric, colorea zurituric, azur, eta azala baño bere gorpucean estituela, egoala ylic

egoten dan baten irudien, Galaciano direuco: Antoli, zoratu egin jazu modu orretan ivilteco? Ceure generaciōa deshonrau, erriez alvorotau, gueure leguia zapaldu eta genteac barre, eta urle eguiten deuzue. Ychiric orrec zoraquerioc, arturic juicioa, artu eguizu ceuri toquetan ya-zun principadue, eta gozau eguizu munduec ceure odolari ofrecietan deucesan convenien-ciec, eta vici vaquian.

Emen Antolic, bere lencusu Galacianori direuco echat zoratu, juicio completaoa deuquet, bacarric adoretan dot Jaungoico eguiascoa, ceiñenac dirian erreinu, eta mundu gustie, berac criaduec dirialaco; zu zara zoro, eta arimeco ychutasunegas (191) zagozana, adoretan dozu-zelaco, guisonan escutic urtenico jaungoico guzurreresco, eta idoloac, eta zuc adoretan dozun Jaungoico guzurrezco au baño lenago, neure arimeco viciea galdu bano (sic) lenago gor-pucecoa galdu-teco prest nago, eta ezañi nire ganera edocein tormentu. Aceraturic Galacia-no Antolic ezaneco verbacas, oraturic daravil dandarres, osticoca, vulcea, uleataric tireca, eta belarrondoco andiec emonic, aguindu bere visteric quendu, eta vicie quenduteco. Arturic berdeguec, eta eroanic Aregio derichon uren ondora, evaquiric ydune eta beregas zorbalda bata, vota bere gorpuce uretara, eta bere arime valio andicoa, egunero, bere pensamentue-gas, ceru eta infernuetara joaten sana, ygaro gaurco egunes Jaungoicoa betico gocetan.

Eragocinsa

Cristiñauac aurquitu gure badogu, Antolic gaurco egunes aurquituco zoriona, biarrecoa da arimean pensamentuegas ceru, eta infernuetara egunero igarotea, ceynzu en consideraci-ñoac, alde eraguingo deuzuen pecatuti, eta santifíqueu arimea, eta guero aurquitu, Antolic, gaurco egunes, aurquitu eban zoriona, amen,

SANTO TOMACEN GANEKOA

Exordioa

(192) Dudebaco gaucea da, santuec ceruen dagocela, eta elizac gugaiti Jaungoicoari erregututene deuceala, eguiñ baditues cristiñauac ellexa eta hermitec, eta euretan imiñi san-tuen rretratu, imagiñec, da eurec Jaungoicoagas vitarteko imiñiric gure aurreti mundu onetati joan dirianac, mesederen bat alcanzau babelaco, justoa da bada eurec imiñico, Jaungoicoa-ren honrraco, eta santuec berari erreguteco (sic) festividate, edo jayec guc celebretea, gaur Tomas santueri particular dan cultoa emotea. Biarrecoa da bada, santu onec munduen vici sanian jarraituco virtuteac zuei presente imiñiric, bere virtuteac zuec bere jarraitutea, emetic aurquitu daguizuen berac aurquituco zoriona baya onetaraco biarrecoa da ave.

Sarrera

Ce argal, eta ecer esa dan guisona Jaungoico baga, berau baga, besteric estala guiso-na diño Job Santuec, espada aucesco zacu bet. Baya Jaungoicoagas badago guisona, da, mundue baño andiago, infernue baño jaquitunago, eta arague baño gogorrago. Jaungoicoa-gas cengosan Sanson uri santuco ateac zustraiti atara, eta leoayan orazac (sic) ascatuten cenducenian; baya Jaungoico (193) baga Dalila emacumeari, ceure indarren virtutea non egoan ezanik filisteoarrac veguiet atazaric ychi cenduezanian David argal, eta bacarric cen-gosan, eragocirciric ceunquen frutue yan, eta Unas ylteco peligroric andienera vota cendue-nian, baya Jaungoicoagas cengosan, Natan profeteac pecatuko lozorrotic yrezarturic, ceure pecatueri gau egunes damusco negarrac, ezarten cenduezanian.

Tomas argal, eta bacarric cengosan Jesucristo vixtu zala ceure lagun unan Apostoluei si-nistu gure eceuncenian; baya Jaungoicoagas, Jesucristoren llaga preciosoen azamarrac zartu, eta siñistu cenduenian Jesucristo vixtu zata, eta bera zala Jaungoico, eta guison

eguiascoa, eta prometido cenduenian, Jesucen amodioagaiti, vicie biar bada emotea. Jaungoico baga dagos pecatuen dagozana, eta orregaitic aspiretuten ditues, arimeco dirian, yru arerio demoniño, mundu, eta araguiec, Jaungoico baric egoalaco Judas, codicie, aspiretu eban legues

Jaungoicoaren semiac elegidu eban Tomas bere discipulu, eta emon beste Apostoluecas batean, mundu gustitic evangelio santuen doctrínea, eroateco potestadea. Arturic Tomacec, bere (194) lagunecas batera, espiritu santu Jaunaren graci, eta doe sobrenaturala, gracie onegas egui san Tomas mundu, infernu eta bere gorpuce baño gogorrage; iqueratu ece ebalaco mundocon persecuciñoac, infernuen laquio, eta lazuec, eta es gorpucec euquico ci-tuen tormentuec

Urtenic cenaculutic doe, eta graci espiritu Santu jaunarenagas, igaroten da Indiaco partera, eta prediqueu Evangelio Jesucena parto, medo, hircano, persa, eta bramaco provincietan. Yrecasiric munduen desprecioa, Jaungoicoaren vondade eta guisonagas deuquen misericordie; ychi eraguinic Jaungoico guzurreescoac adoretea; eta convertiduocoac bauticeu Ayta, Seme eta espiritu Santu Jaunaren ycenian, euretan contaudo a bauticeu sala Belengo portalean Jesus adorauco Erregua. Ichiric provincie onec ordendu cituen obispo, eta sacerdotean cargure, berac zavalduco erlegiño santea oñean euquiteco; aldendu san Tomas provincien onen vuru cen Meliapur erichon uri, edo cortera, ceiñetaco Erreguiac adoretan eban Egusquie bere Jaungoicosat.

Bigarren partea

Euquiric presente Tomasec Jesucristoc sari ascotan ezaneco verbac: Ni banoa, (195) eta zuec tristetuco zarie, zuec yoan biarca dozue erregue, eta principen aurrera, eta eurei yrecasi nire Evangelioa, ceuen veguiencias ycusico igaro dodan caliz garraza, virtute, cerueta-ra ygotz, eta aguinduko promesac cumplidute. Emon bada arpegui neuri emonico berbiari neure caliz garrazaco odola arturic,

Presente euquiric Tomasec Jesuceri emonico verbia, bere escalan evillenian, Jaunaren graciegas, beragan confianza imiñiric, doa erreguan aurrera, eta humiltasun andiegas direuco: berorrec Jaungoicosat adoretan daben egusquie, esta besteric espada Jaungoicoac criaduoca. Egusquie baño andiagoa da guisona, bere gorpucen zarraturic deuquelaco, Jaungoicoaren yrudie dan arimea, eta guisonac ama biar deu bacarric yzatea emonico Jaungoicoa.

Accerraturic erregua Tomacen doctríneagas, aguindu eban laba gori baten Tomas zarturic, bertan erre, eta auz viurtutea. Jaungoicoac quenduric zueri erretaco euquen virtutea, Babiloniaco laba gorien zarturic egosan mutil gasteai quendu eugen legues, Tomasec dañu baric, laba vixtute egoaneric urten eban. Iqueratu baric erregua (196) mirari onegas, coisidu Tomas, eta daroa Jaungoico guzurreesco san ydoloan aurrera eta direuco: velaunico jarriric, adorau daguuela Jaungoicosat egusquien yrudie. Escaturic Tomasec Jaungoicoariascoen con-versiñoraco, araco ydoloa apurturic lotu dile (sic). Enzunic Jaungoicoac Tomacen escarie, yllunduten da cerue, jarten da edoy balz, eta iqueragarri bet, bertan formau trugoi, yusturi, (sic) arri avazuce, eta terromorri (sic) batec arturic lurre. Yausten da ydoloa lurrera, eta apur-turic lotu. Icusiric Erreguiac bere Jaungoicoa apurturic, ezarriric hechiceriaco gaucetara ar-giro egoan milagroa, aguindu eban Tomaceri vicie quendutea, eta alboan egoan lanceru batec emonico lanzazoac, Tomas ylic ychi eban. Emen bada Tomasec bere misiñoa complidu-ric, aurquitu martirioco palmea.

Eragocinsa

YI san Tomas, baya bere arimea igaro san betico viciea dagoan zorionera. II san Tomas, baya bere arimeac igon eban ceruetara, eta bertan dago bere benetaco dirian devotoacgaiti, Jaungoicoari erregutu, eta arimeco dirian mesedeac alcancetan, eta ascotan gorpuceco ga-chetati libretan. Gure badogu (197) guc bere Tomacec aurquituco zoriona, aurquitu, biarre-

coa da berac mundu onetan eravil cituen pausu santuei yarraitutea. Biarrecoa mundue desprecieu, infernuco lazu ec goitu, eta mortificaciño, eta penitenciegas gueure arague gogorago eguitea, aurquituco badogu betico dan zoriona.

SANTU GUSTIEN GANEKOA

Exordioa

Elexa ama Santeac urte gustico egunetan celebretan deu santu, edo santuren baten festividadea, baya aurquitoric ceruan urte gustiec deuquesan egunez baño santo, eta santa gueyago, urtean egun bet dediqueu daroa ceruco santo, eta santa gustiec honrretaco. Santo eta santa gustiec honrreu biarreco obligaciñoa deuquegu; gustiec dirialaco gueure anaje, ayte baten troncoti etorriec garialaco. Gustiec venerau biar dogus, gustiec deuquielaco Jaunaren aurrean medianera guresat ycetea, ceinzuen intercesiñoa, imiñiric Jaungoicoagas, libretan gaitu Jaungoicoac arimeco gach eta ascotan gorpucecoetati, arimean oneraco ycenic. Imiteu biar deucegue eurec mundu onetan eravili cituen pausu santuei, guc bere merecidu daigun, batean Jaungoicoa gocetea.

Sarrera

Estago bada achaquieric santuec ycete, (198) Jaunaren laguntasunegas batean, edocein estadu, edocein oficio, eta edocein lecutan Jaungoicoa, amau, eta santuec ycen leites. Santo ycenic Jaungoicoa, berac emoten ditus auxilio asco dirianac santo iceteco; guc deuqueguen mandamentuec, guc deugugen sacramentuec, eta guc deuquegun arerioac, euquesan, gure aurreti mundu onetati ceruetara igaroco santuec: guc deuqueguen sacramentuec arimec santifiquetaco, eta guc deuqueguen iru arimeco arerio lez goitu, estadu genero gustiecoaco santo equinic, ceruen zartu.

Santuec espagara, eta condenetan bagara, esta Jaunaren errue ycengo, espada bacocharena. Judas Jesucen escalan aurquitu, Jesucen verba ederrac zarri enzun, eta condenau bazan, esan Jesucen errue, sarritan ezarri eucesalaco santo equiteco asco cian auxilio, eta graciec; condenau basan Judas, bacarric condenau san, berac gure ycenagaiti, codiciaco videti urten ecegaiti. Jasoten da bada, gueso eta medicuegas jasoten dana: medicuec erre-cetau agaiti guesoa ozatuteco asco dan votivea, guesoac artu gure espadeu vo / tiquea (199) mingoza dalaco, eta ylten bada, esta medicuen errue, espada guesoarena. Ceruko mediku dan Jaungoicoac, gure arimec santifiquetaco, eta gu santuec yceteco, rrecetauric deucos sacramentu, eta beste auxilioac, bayu artu gure espadolus sacramentu onec, pecatuen il eta condenetan bagara, esta ceruko medicuen errue, espada condenetan danen errue.

Bigarren partea

Esta bada duderik cetan euqui santuec ceruen dagosela, eta eurec gugaiti Jaungoicoari erregatuten deuceala; orraco altaratzen, gure aurreti mundu onetati yoane coac, imini baditutes coloauric santuen imagynec, da euren vitartes Jaungoicoaganic mesedere (sic) bat alcanzau deudalaco (sic).

Abram patriarcaren erregus parcatu eucen Jaungoicoac Abimele erichon erreguiari: Moycesen erregus, sarri ascotan parcatu eucen Jaungoicoac Israelgo errieri; Elias profeta santuen erregus, ezarri Jaungoicoac asco zan eurie, iru urte eta erdien ciqueturic egoan lurre vustiteco.

Aurquitoric guison onec, oraindiko munduen aragui mortalean, ainbet alcanzu euqui badeu, euren escari, eta erreguec, Jaungoicoan aurrean, ce alcanzu euquico es deu (200) ceruen dagosan santo, eta santan erreguec Jaungoicoaren aurrea, gure arimen (sic) convenidu dana alcanzau, eta virelduteco? Mundu onetan dagosan santo eta santan reliquiecs vixitegas, egun baditus Jaungoicoac millagroac, ce graciec igaro estitus Jaungoicoac gugana, ceruen euren vitartecotasuna imiñiegas? Cenbat mesede alcancetan es da Jaungoicoanic Maria vitarteko imiñiric? Cenbat vider alcanzau estosue Jaungoicoaganic ur gozo, eta mamin-zue, ceuen campoac siqueteac arturic, Antonio vitarteko imiñiegas?

Eragocinsa

Icen bada santuec ceuen arimetan sacramentuec sarri arturic, mundoco trabajuec paciencien igaroric, jarraituric humildade, caridade, castidadeari, aurquitoric ceuen arimec san-

tifiqueric (sic), merecidu daigun gustioc, santuensat dagosan gloriec, aurquitutea - Laus deo, honor et gloria, Amen.

Liburu onec deuquesan asuntu, edo escritoan, aurquituten bada federatu, edo Ellexa ama Santeac irecasten dabent contraco gaucerac, declarauten da, dala vorondates contracoa, eta imini espalice legues retrataric lotu (sic).

Juan Cruz de Renteria

Eracusten da Jaungoicoarenaganaco egote edo existencie, eta bere anditasune (201)

Lelengo articulue

Jaungoicoa da gauce gustiai icetea emonicoa, orregaiti izaita aciera eta acavubacoa, ceinec diñoa: Neu nas izaite necesidadescoa, eta iñorganic etorribacoa 'ego Jehobah', Exod. c.3, v 14: au de Nire icena eternidate gustien, nasalako gauce gustien lelengoco causa-causa causarum. Jaungoicoaren eternidadetico aurquitute, edo egotea, eracusten da humanidadeac, demporaric ucic egui baric, bere ganian euqui dabent siñistuteagas, eracusten munduec deuquen ordena, eta edertazunegas. Estago erri bet, anchin ecoa icenagaiti, divindadearen ezaupideric euqui estabenic: zavaldu veguiec lurrera, eta aurquituco dire uri, eta albo erriez gauce ascoren esaupide baga, baya es Jaungoicoaren ezaupide baga: Ciceron eta Senecac egui au confirmetan deude. Jaungoico edo divinidadean ezaupidea ain san generala humanidadean ce, Lucrecioc saludau bere maezue supersticioan contra yagui zalaco.

Hal desgracies egonagaiti guisona Jaungoico guzurreescoac adoretan, es orregaiti, errazisco dan humanidadea, Jaungoico eguiascoaren ezaupidebaga aurquitu icen da. Notaric andieneco filosofoac, politique, eta lecu ereguiec galduzko peligruegaiti, adoretan bacituen errietako ydolo falsoac, es orregaiti ezautu baric lotutzen cirian mundue criaduko izateac euquen anditasuna, eta poderioria (202). Anchin ecoa poetac, filosofoacas batean, ponderetan eu den mundue ecer ecetati criadu eban Jaungoicoak euquen poderioa. Gauce onen ganeraco Homero, Hesodio, Horacio, Virgilio, eta Ovidio diñoe: admirgarriez dala ecer ecetati gauces criaduko Jaungoicoaren escue. Fraisonioc: idolatran delitue zala, Jaungoico eguiascoa adorau eceitea baya pecatu onegas aurquituagaiti, erriez noicic peitean igaroten ciriala Jaungoico eguiascoa adoretan. San Cipriano diñ: erri gueyenac, natural dan inder bategas, confe-setan eudela Jaungoico eguiascoan existencie; deadar eguiten euden euren groseriasco supersticioan erdien. Ho Jaungoico! berac dacuz, eta beragan encomendauten gara —Deus videt, et Deo nos comendamus.

Erri anchin ecoa, eta oreinzucoetan yllun, eta auznabarrean baño espada aurquituric divinidadean ezaupide, eta sinisqueria, arguio da, Jaungoicoarenaganaco fedea, aurquituten dala conforme errazisco dan naturaleceagas, zartu dalako divinidadesco siñisqueria dempora gustietan, guisolan errazoyan. Parenin derichon rreligiosoac diñ, chinaco salvajeant artean, establa aurquitu, Jaungoicoaren ezaupideric esteuquen bat, ofreciduten dituelaco, euren sacrificio-ac, ceruco espiritu dan divinidadeari, Groseriasco gauce bat ycengo lizate ecer ezari, entendimentu, eta viciceric esteuquen gauceari, promes, eta sacrificioac eguitea. Aurquituric bada modu onetaco oyn, edo cimentue humanidadeari Jaungoicoaren ganian siñisquerias, cein da fe de onen jayoqueria? Es besteric (203) espada historie sagraduec irecasico doctrinrea, cein joan dan dempora gustien aurres, aspireturic ichi guisolan jaquituri, eta guzurren contraco vitoria atara siñisqueria, edo fede au aurquitu dalako, humanidadea aurquituco lecu gustian.

Icasvide bacar eguiasco au, humanidadean general dan au, da benetan erraziscoa, Jaungoicoaren eternidadetico egoqua, edo existencie eracusteko pasiñoac eguien guzurregas ezaindu badeu, guisolan bere pasiñoan guzurreesco idoloia adoraciōa emon badezo, da guisongan dagoan argaltazunen faltea, da guisolan sentiduen errorea. Bada Jaungoico eguiascoaren siñisqueria, humanidadean general, eta dempora gustietan ycenecoa, cein explique ley bestegas, espada errazisco naturaleceagas baño.

Hal Adanen generaciōan Jaungoico eguiascoaren siñisqueria da, araco semiac, naturalmentean, gurezoari deucen amodio, respeto eta ezaupide langoa yrecasi semiarri esteue-laco bere gurasoari amodia eta modu onetaco yrecasteac, naturalesa, errasoia iqueratuco

leuques benetaco seme danac, yques idean enzunic, yñes eguingo leueque, ygues vide deunui au emoten deucen ondoti, eta joanic bere aytaren besartera, eta emon berari zor deucen amodio, veneraciño, eta irrespetoa.

Ateo bat etorri daquigule humanidadeac general eta dempora gustietan (204) euquico siñisquerian contraco yrecaste eta guzurregas enzuten badeucegu, bere argumentu illun, eta consequenciric esteuquen ygues idearj, yllundus eta ychutu leiques gure arimeco potencie, bayo beraganic alde equinik, iqueraturic enzuniko guzurrecas, zarturic bioceco saconfazunian, adituric ceru, Iur, eta euretaco gaucei, euretan aurquituco dot ateoac quendu gure ycen deusten Jaungoicoa, niri ainbat mesede equiniko ayte on, eta maitegarria.

Bigarren articulue

Eracusi den siñisqueria espaleuko humanidadeac Jaungoicoan eternidadeco egoqueran, pasiño baco errazoyac ezautu biar deu Jaungoicoaren eternidadetico existenci, edo egoqueria, bere eguiquera miragarriscoetati. Nor da bada veguiraturic ceru, Iur eta eurec deuquesan ordena eta edertasunegas etorrico estana ezaututera eurec criaduco jaungoicoa?.

Guisonan entendimentuec aurquiteco deu ordena, eta edertazunen ezaupidea, eta emetic atera ylacinoso idalguie, munduen dagoala ordena, eta edertazunegas apaïnduric. Ordeña, eta edertazun au, ecin esan, besteganic datocela, espada Jaungoico jaquituri neurri bacoan entendimentuti. Guisonan limitesco entendimentuec equinico gaucec, verbaraco erloju, palacio, onci, edo beste edocein gaucec badeuques ordena eta edertazun guisonac emoniaco, casualidadeco obrac estiralaco, celan bada biarca esta jaquituri neurri bacoan entendiñen / tue (205) ceru, Iur, ecer ectetati criadu, eta eurec conservau, ordenau, eta edertazunegas euquiteco?. Edo alda casualidadean eguiqueria?. Urrin onelango pensatea, bacarric dalaco Jaungoicoaren escuec equinik, eta berac conservauten daben obra, edo eguiquera mirariscoa. Ichiric emen filosofia eguiascoari, argui naturalac emongo dituen errazoyacas Jaungoicoaren eternidadetico egoquera, edo existencie provetaco arduria; cristianu fededunoz ezan biar dogu: Jaungoicoac ece ebala ycharon filosofien ezaupide, eta observaciñoai, bera nor san guisonari eracusten emoteco; filosofiec gauce onen ganian deuquen observaciono, eta pruevea, esta segurue conforme espadago rrevelaciño ycasbideagas, filosofiec bacarric deletereau dituelaco, escriture sagraduec yrecasico rrevelaciñoa (sic). Liburu Sagradae irecasten daben fedeco lelengo egui da, Jaungoicoac demporan criadu cituela ceru, eta lurre. Moyseec díño: Jaungoicoac esan eban, argue equin bedi, eta argue equin lotu cen C. 1 v 3. Salmisteac dino: Jaungoicoac verba egui eban, eta gustie equin lotu zala, aguindu eban, eta gustie criaduric lotu cen Ps. 148, V 5. Jaungoicoac berac Isayacen vitares díño: gueitu deuet ceru, eta lurreri, eta presentau yatas,- Isay. C. 45, V. 24.: Juditec díño: Jauna verba equin dozu, eta gustie equin lotu cen ceure duridridadean inder bat equinik, gustic creaduric lotu cen Ju. C. 16. V.17: Machabiotaren amac yreca / si (206) bere semeai, Jaungoicoac ecer ectetati equin cituela ceru, Iur eta euretaco gauce gustiec eta humanidadean erracea bera. II Macab. C. 7.V. 28. Ecín bada legoque gauce onen ganian, equivocaciñoic, dalaco berau Jaungoicoaren eternidadetico egoquera edo existeico lelengoco oyn, edo lelengo fedeco articulue, eta eracusic lotu, creadore baten necesidadesco eternidadetico egoqueria, da es aciera es acabu baco necesidadesco izaitetra criadorea, cein baga ecec ecin euqui euquian (sic) izaiteric.

Irugarren articulue

Jaungoicoac equinico obra principal bat san, bere yrudico criaturea equitea, eta beronerie naturalesa gustico escuvida, eta criature au da guisona. Jaungoicoac eceucen verbaric equin errazoi baco dirian animaliai, eta bay guisonari. Da cegaiti? Errazoisco criaturea dala-co. Emon bere porciñoti lagune, apaindu gracies, vedeincatüric direueque Adan, eta Evari, aci, eta aumentau daguiela munduen euren generaciñoa, yminiric eurei aguindu santuco leguea. Onelan aci cen Jaungoicoaren provindencie guisonagas, Jaungoicoac creaduric ve-deincatu eban asteko zaspigarren egune, eta aguindu guisonari: egun au santifiquetaco. Aguindue cumplitaco Adan eta Evac santifiquetan dabe asteko zaspigarren eguna, eta eu-ren lelengoco semiac, ofrecidu Jaungoicoari garbiteguico sacrificioac.

Jaungoicoac errazoisco guisonari imini biar eucen moral dan legue santue eta orregaiti aguindu biar eucen ondo eguitea, eta eragoci charto eguitea; eta (207) imiñi ondo eguiten dabenzaco, premioa, eta charto eguiten dabenzaco castigue. Ordenau biarreco san guisonanzaco, munduenzaco edertasune biarrecoa dan legues. Jaungoicoa da santue, eta bere santidadean dago misericordiaco leguea, guison charto eguinicoari, arrepentiduten bada guisona, bere charto eguiñescoagas, errestasun gustiegas, misericordiaco dan leguiagas, parcatutem deuelacelo. Gauce onen exemplue, aurquitutem da, lelengo guison pecatuen jauci saganas, cein castigueu be eban Jaunaren justicie, baya bertati prometidu eucen Redentorea, bere misericordiasco legueac.

Jesucristo icenic ayta Jaungoicoaren semia, beti eracusi eban, mundu onetan, bere misericordie, vota ece ebalaco, bere ondoti, yñor piedade, eta misericordie baric; pecatariric andina bada, ece eban yños despaciau, eta lozatute ychi, eta bai parcatu: ardi galdu bazulegues veguiretutem eucen beragana, benetan arrepentiduric, etorren pecatarieri; alan veguirete eucen Naingo pecatarriari, Zaqueo, Samaritana, Magdalena, emacume adultera, Pedro, Di-mas eta beste ascori; modu onetaco misericordie eracusi ebala Salvadoreac mundu onetan diño San Pablo Ep. ad Tito, C, 3, v. 4.

Jaungoico gustis on, eta justua danac, justoa dalaco, ecin yíón condenau leique, delitu baga, eta ona dalaco, salvau lei guisona, meritu baga, eta yñori onetan perjuicioric eguiña baga diño (208) San Agustinec - contra Juliani d. 3 C. 18, Nº 35; Duas Epist. contra Pelagi d, 4, c. 6, N.º 16.

Jaungoicoac gura dau guison argal, eta pecatarien benetaco conversiño, eta penitenci eguiñascoa. Da cegait? Dalaco fedear irectangle dabena, pecatuen ilten dana, mortala bada, salvatuco estala. Facite fructus dignos penitentie - Pet. ad. Corint. C.7. c. 10: pecatariec pe-catuec confesau eta penitencie eguiñascoa eguiñic, justo eta promesetan fiel dan Jaungoico-ac, parcatuco deucezalaco pecatarieri bere pecatuec diño San Juanec- Joan, C, 1 v, 9:

Bigarren partea ceiñetan eracusten dan guisonac deuquen beresco sentimentuti, ygaroten dala siñisquera sobrenatural danera. Bata biarrecoa bada munduen guisona viciteco, bestia biarrecoa dala guisona salveteco.

Lelengo articulue

Psicologien iquesvideac ofreciduten deuzo guisonari observetea, ce armoni andi, eta mugarri aurquitutem dan natural, eta naturalecean goiti dirian gaucetan: guisonaren vioceco secreto, eta erlegiño eguiascoren misterio excutuetan. Adituric ceru eta lurrean Jaungoicoaren poderioa, euren ganean imiñi biar deu guisonac bere atenciøa; aurquituco dabelaco argui eder bat, ceiñegas ezautuco dituen, ordu artean ezautu estituen misterioac argui onec ezautu eraguingo deuelacelo guisonari, ce armonie deuquen natural eta sobrenatural dirian gaucet.

Argui onec bada ezautu eraguingo deuzo guisonari, bere vioceco secretoa, eta ce argala dan bere entendimentue, fede baric, rrevalaciøari siñisqueria emon baric, Jaungoicoac eguiñico mirariec al / canceltaco (209).

Guisona da errazoyaren capaz, eta orregaiti erlegiño eguiascoaren capaz dan criaturea, berescoa bada guisonagan errazoia equitea, berescoa da beragan erlegiño eguiascoaren sentimente equitea. Orregaiti sentimeto onec ycen biar deu oso eta completuac, guisonan desevo, afecto, eta destiñue aurquituteco. Errazoisco guisona, eta fedea estire alcarren arerio, naturalesa, eta humanidaddea alcarren arerio estirian legues; erlegiño eguiascoaren sentimeto deuquen guisona ecin bada, ycen leite sentimeto onen arerio, alcarren arerio ycen baric, guisonan errazoi, eta fedea bata besteari escuec emonic, eracusten ditues gauce miragriec. Eurei veguiretu, eta eurec irectangle dabena, iquesi gure badeu guisonac, ataraco ditus idalgi ederrac, eta aurquitu betico, guisona zorion eguingo daben egui. Chorien egas egui-tegas, ecin bada aurquitu, bere lumiac deuquen colorea, eta es ichasoan sacontazune, bere ganeco oleatuetara veguiretuegas, errazoi andiegas esan eban jaquinzuec: jaquite chiquer,

eta estudio ondo eguin bacoac, daroala guisona guzur eta pasiño deungueco videra, eta al-dendu erlegiño eguiascoaren videti.

Bigarren articulue

Zabaldu bada naturalecean liburue, eta ondo veguireturic, bertan aurquituco deu guisonac Biblia Sagraduen asterren eta argui mirarisco bat, bertan aurquitu guisonan viocean da-goela, egui jaquiteco natural dan egarrie, ceiñec daroan guisona, humanidadeco ver / biari (210) siñisquere emotera.

Guisonan lelengo urtetan, bere gorpuceco sentidu, eta arimeco potenciar; presentetan jaque misterios beteco mundue, eta bere vioceco instinto eta natural dan egarrie, escatu egui jaquitea. Orregaiti ume batec biarrecoa deu ylluntazun, eta confusioan presentauten jacon gaucea distinguidutea, eta cargu au dago encomendauric humanidadeco fedeari; ayte eta amac, es bacarric irecasten deuzo verba eguiten, baita gaucei celan dei eguingo deucen, aytet, eta amac engañetan dabelaco dude baric, dei eguin umeac gauce bateri, eta besteari euren ycenagas. Guisona ume demporan, lotu basan contentu gaucen y cena jaquinegas, aurreraco demporan jaquin gure deu, nor edo cer dan guisona. Noc edo cec emon deucen izaitea, ceteraco dagoan mundu onetan; eta emen sentidu guisonan espirituec imortalidadeco sellu admiregarrie.

Noc bada guisonac, dempora onetan, eguiten dituen itanduteai eranzungo deuce? Neure ayta: cer da Jaungoicoa? Celan eguin cituen Jaungoicoac gaucec? Cer bada icengo da niges, edo ceteraco nago munduen?. Ara emen, non jarri den guisona eternidadeco dirian gaucec jaquiteco egarriegas; baya bere itanduteai eranzuteco estago errazoiric, bacarric eranzungo deuzo rrelaciñoac: divinidadeco dan fedeac, ceiñegas alcanzauco dituen misericordia dirian gaucec, bere errazoyari contra eguin baric.

Irugarren articulue

Completo baco, eta vorlescoa icengo liza /te (211) guisonan acierea, bere entendimientue ascatu, edo ezaupidera elduric, espaleuko humanidadeco federic, berau baga, esleku errebas icengo genero ascotako operaciñoac eguitea. Nagusi, edo autoridadeac irecasicoari siñisqueria emongo espaleusquio, galdu耶 ycengo lizate guisona. Hal ce magestadet andicoa dan maezu baten yrecaste, eta verbia. Pitagorastarrac, jaquituriaco dudet eravaquiten cituen sentenci onegas: Maezuec esan deu. Bada asco da berac esanecoa gure autoridadea dala-co eta berac engañauco escaituelaco.

Veguiretu gure bada ondo filosofi, metafísique (sic), cienci genero eta oficio genero, gustietacoa: ycusico da, humanidadeco fedea dagoala guisonari icasvidea emoten. Cienci genero gustietacoan, guison gasteari, emoten jacasan ydeac: generalac baño estiralaco. Igarric guisona jaquituriaco ateatara dino Gramatiqua dala, verbac ondo iminten irecastecoa; Filosofie, egui villeteteko; Geografie, munduen ezaupidea aurquitutecoa. Baya onec ydea generalac guisonac euquiagaiti, cebat dempora biar esteuce estudioac eguin biar estitu, gaucen onec azaldu eta euren demostraciñoac eguiteco? Non bada descanzauco deu, bien vitar-tean, guisonan entendimentuec? Humanidadeco fedeac.

Laugarren articulue

Eracusiric guisonan icasvidea dagoela encomendauric humanidadeco fedeari, cein ba-ga ecin aurquituco da (212) guisona sepultau artean, igaro biar da apur bet aurrera, eta veguiretu guisonan entendimentue. Bere alturera eldutene dan demporeari, ezarri bada videa mundo parte gustietara, eta icusico da humanidadean parteric nagusiena, vici dala, vecu-quico icerdiegas, ataraco badeu eguneco biar dabent mantenimentue. Parte onec estudiau estabelaco, letraco cienci dirianetan, euren problemac resolvietaco, parte esan danac, es-teuco jaquituri, es capatzazunic. Baya humanidadeco fedeagas resolvietan ditus, genero as-

cotaco gaucec; evaquiric arbolac, mendutu eta coisidu frutu ederrac, euren aurreti yoanecoa-ri siñisqueria emonic. Da bacarric eravaquiten ditues veguiecas ycusten dirian gaucec? Es, bada igaro doas Metafisique, Geografi, Moralidade, eta Erleginoco casa santure, eta cienci, eta letran ezaupide baric, eravaqui, jaquitun dirian ascoc eravaquiten estituten gauce asco. Da non aurqui modu onetaco academie? Autoridade, edo humanidadeco fedeac verbaric verba, generaciñoric generaciñora igaroco fedeac, veingo baten egie aurquitu eraguin deuzo guisonari, letraco ciencien jaquiturieric euqui ecagaiti.

Cienci andico dirian guisonac, ceinzuec igaroten dituen gauvelac, eta soseguetan estirian urreco secretoac azaldu artean, ecin igaro leites, mundu onetan humanidadeco fede baga, euren jaquituriec descansauten dabelaco, gauceric gueyenetan, humanidadeco fedeac egapian. Socrates batec dino: necesidadecoa dala, bere discurso (213) eta errazoya alde batera ychiric, siñistutea generaciñas datorren tradicioñari; galdu gure espada gustis juicioa, ce guison jaquitu andicoa ycenagaiti, potzuko esta icu[sil]ric bere juicioac ataraco discursoac, dagozala batera, beste guison talento andicoac ataracoacas? Celan bada icengo esta onen posa, araco deser-tuen videac erraturic, ariaza baten, beste guison baten oyñezac, aurquituten dituen moduoa?

Bostgarren articulue

Humanidadeco fedeac biarrecoa da, guisona mundo ciudadano equiteco, eta divinidadeco, guisona ceruco ciudadanoa equiteco. Adanen generaciñoac sentiduric, bere errazoyas goiti aurquituten dirian misterioac jaquiteco egarrie, ceiñeri satisfacifioa emoteco, estagan lurrian guisonic, ceruti rrevelaue ycen ecic. Cein alda bada guisonan egarrie ametauco daben fede? Da ydolatrac deuquena, mahometarrac euren alcoran deuquiana, edo judioac deuquena? Es, espada Jesucristoren erlegiño santuco fede -justus meus ex fide vivit. Paul. ad. Hebr. C. 10. Cer baya esan leique fede onen ganian, bautismu santuen vitares, teologaco virtutera eraguiten danian? Nor da capaz fede onen prodijo eta maravilleis (sic) aciueria emoteco?. Bacarric tratetan da, filosofi eguiascoaren fedeac puntu edo parte bat legues, eta orregaiti ezautu, bere misterioac, campoti ezarten dituen frutu, eta argui ederracas. Cein da bada izozac ocitu, eta gogortuegaiti guisonan vioza, erlegiño eguiascoaren chinguerrac ucutu esquiero, berotu baric lotuco dana? Ycusiric fede catolicuec eguin, eta eguiten dituen mirariec, ce vioz beregana eldu baric lotuco da? Aurquituric necesidades guisonagan, bere errazoyas goi /ti (214) dagosan misterioac jaquiteco egarrie, fedeac aurquitu eraguingo deuzo, satisfaciños beteric ychico daben objetoa.

Guisonan gorpucec, necesidades escatuten dituen, gauzen satisfacíñoa emoteco, Jaungoicoac criadu cituen ataraco biar cirian gaucec. Egarri de guisonan gorpuce? Egarrieu satisfacietaco, Jaungoicoac criadu eban ure, eta modu berean beste generoac. Alborans vota ecin bada filosofoan argumentue, ceiñec ereguiric gora galzu bet ciñoan: existiduten galzu onec, bada existiduten deu Jaungoicoac. Ecin vota bere leique alvoranz argumentue; sentitan dot fede eguiascoaren, necesidadesco dan, egarria, bada existiduten deu eta bacarric aurquitu erlegiño eguiascoaren casa santuen, cein bacarric dagoan janciric, guisonan espirituco deseo, eta afectoai satisfacíñoa completaoa emoteco señaleagas.

iHa! Ce miñec expliqueu lei Jesucristoren erlegiñoan zarturic, guisonan espirituec aurquituten daben poz eta satisfacíñoa? Itaundu, esaupide completaagas erlegiño onetan zartu-coai, eta gustiec batera eranzungo deude: ordure artean icara, eta sosegua baga egosala euren espirituec, baya bautismu santuegas, Jesucen erlegiñoan zarturic, lotu sosegua, eta satisfacíño completaan, amatau zalaco, euren espirituec necesidades sentiduko egarrie, zartu cirialaco, betico zoriona aurquituten dan atetic - 'hec est via, ut cognoscant te solum deum et verum, et quem misti Jesum Cristum'. (sic) Joan. C: 17 v.3. Humanidadeco fedearen senti-

mentu necesidadescoac, descancetan deu mundo guacetan. eta divinidadesco fedearen sentimentue, descancetan da eternidadean. (215) Jaungoicoaren laguntazunegas, igarorik sentimentu sobrenaturalera guisona, eta jarraitu fidelidade, eta intencio onegas, esteu yicho Jaungoicoac, bere escuti urtenico dan guisona, bere espirituco egarrie amatau artean.

Seigarren articulue

Icenic general, necesidadesco guisonac egua jaquiteco deuquen egarri espirituala, celan deuco egui onec ainbeste contradicíon? Celan aurquitu ainbeste siñestuten estabenak erlegiño santaco misterioetan? Icenic bada guisonagan necesidadesco, eta general errazozoya, celan dago munduen ainbet zoro? Ycenic semiac ayteri zor deucen amodia naturala, celan dagos munduen, euren gurezoac ilten dituenac? Icenic guisonagan natural bere vu-ruenzaco amodia euquitea, celan dagos, munduen, norberan vurue ilten deudenac? Celan, edo cegas expliqueu leique? Cegaiti galcean daben guisonac bere vicie? (sic) Puntu au ondo examineuric, ataraco dan idelguie da, gustis chiquerra dala, es siñistute, edo increduluen partidue; aurquiuagaiti siñistu gure estaben guisonac, erlegiño eguiascoagan egui gustiec, estaroe ichi partere bat siñistu baga, bere pasiñoari ondo badatorquio. Eta San Bernardiñoc dino: au dala impiedade completoa, guisonan ychutasune dalaco. Modu onetaco guisonac munduen egonagaiti, gauguesco choriec dagosan legues. Auciric lotuco al da, guisonan vioz, gauce misteriosoac, jaquiteco deuquen egarri espirituala? Ecelan bere es. Naturaleceac nocic peitean atareagaiti disforme dirian mostruec, esta galduen edertasunen necesi / dadisco (216) dan leguia. Alan bada aurquiuagaiti munduen, es siñistute deuquen guisonac, ecin esan leique: galduric lotu dala guisonan viocean zaconduric dagoen egarri espiritusco dana. Alan valiz, zoro batec, jauleti esan baño esteuko bera zoroa dala, eta guisonan erraceac zoroac icen biar dabela. Es siñistuta deuquena, da bada, entendimentue zoraturic deuquena, eta zorotasun onen guexoa dator, parteric nagucien, guisonan viocetic.

Elduric bada, jaunaren graciegas, guisonan instinte (sic), egui jaquiteco deuquen egarri espirituala sobrenaturalera, guinan (sic) errazoi, eta fedeac aurquituco dabe, maravillosa dan armonie bat, ceru, lur, eta euretaco gaucec deuquen legues.

Esatia guisonac bere errazoyagas bacarric governa, eta dirigidu viar dabela Jaungoicoac rrevelauric deuquesan misterioetan, da Ellexa ama santeac condenata deuquen proposicioña, eta bay humanidade generalac - fides autem non habet meritum, ubi humana ratio prebet experimentum. S. Greg. hom. 26. Esatea argui eder sobrenatural dan au, doala guisonan errazoyan contra, da entendimentuen ylluntazun, eta guisonan pasiño char bat. Errazoyaren contra alda, achan puntara igon dabenac, bertati jausi eceiteco, achari oratutea? Arrazoyan contraco al da navegaciño lucea daroanac, onci sano bat artutea? Ce agrabio eguiten deuzeo Jaungoicoac guisonan errazoyari escatutene espadeuzo besteric, espada guison baten verbiari emoten jacon siñisqueria baño? Bere rrevelaciño santuco verbiari siñisqueria emoteco baño es / padiño? (217)

Iqueragarrie ycengo da, Jaungoicoac bere verba santueri siñisqueria emon gure ycen esteucenai, eguingo deucen juicioa. Esango deuce: zuec siñistu carta, edo mapa mundi bateri, eta beragas igaro ichaso luce, eta peligrosoa: siñistu carta bateri, eta beragas asegureceuen interesac; baya sinistu es nire verbiari, cein egoan sendoturic prueva, milagro, eta testimonio alvorans vota ecin ceuquianacas -testimonia tua credibilia facta sunt nimis, Ps. 92.

Zazpigarren articulue

Icenic bada, errazisco, eta maravillosoa, guisonan espirituec deuquen egarrie, gauce misteriosoac jaquiteco cegaiti deuco gauce maravilloso onec ainbet contradicíon guisonan

aldei? Instinta (sic), eta eguiie onen contra, es bacarric jaguiten da guisonen entendimentue, bayte guisonan vioza, eta viozagas batera vorondatea. Egunero icusten da, guisonan vorondatea dagoala guerra eguiten entendimentueri: entendimentuec eracusiagaiti errazoyer, non dagoan eguiie, eta bere zorion beticoa, vorondateac vota daroaco alvora entendimentueri, berac presente iminico eguiie; especialean vorondateac ychi biar badeu domineuric deuquen pasiño charra.

Entendimentuec direuco vorondateari: gaugesco iviltea peligrosoa dala, baya vorondateac gauges cumpliduten baditus bere pasiño deuguec, alvora votaco deu entendimentuec iminico errazisco dan eguiie, eta zarturic gauges guisona lupeza baten, edo jausiric vide peligroso baten, galdu bere vicie. Vein bada licencioso bateri, astun eguiten jaco, virtuteco vi-dean zartutea; codicio / so (218) bateri, bere diruec istea; incredulu bateri, convertiduric, Je-sucen erlegiñoan zartu, eta bere legue santea jagotea.

Eracusiric guisonaren vioceco sentimetu, edo instinto natural eta necesidadesco dana, celan deuquen, bere errazoyaz goiti, aurquiten dirian misterioac, jaquiteco egarri espirituala, cein bacarric amatauten daben erlegiño Jesucenac deuquen fedeac, imini den estauden guisona, eta ecin badeu fede au aurquitu bere egarri espirituala amatateco, cer eguiin leique? Escatu vorondate onegas Jaungoicoari socorre, eta Jaungoico misericordiosoa, es-teu desamparauric ychico, bere escutic urtenico dan guisona - Deus autem, facientibus quod est in se, non denegat gratiam. Sap. C. 4.

Irugarraren Partea, ceiñetan eracusten dirian guisonac Jesucristoren erlegiñoan deuquesan conzueluec.

Lengo conzuelue

Icenic guisona Jaungoicoaren escutic urteneco criatureric preciosoena, criaduric Jaungoicoac guisona iñocenciao estaduen munduen (sic) ocupetaco, guisonaren viozean Jaungoico ezarrico seilluec, biarrecoa deu examiñe luce eta estudio andi bet eguitea. Espacios aditu gure bada, nondic datorren guisonan espirituac villetuteten daben erlegiñoa, bere espirituco dan egarrie amatauten daben erlegiñoa, aurquituco da Jaungoicoaren escuti urtenicoa dala cein den eguiie bera - ego sum veritas.

Eclesiasticuec dino: Jaungoicoac temporaric ucic eguiin baga, emon deucela guisonari bere vorondate santuco yquesvidea; guisonac celan aurreratu edadian, alan errevelau deu-cela Jaungoicoac guisonari (219) bere santidadeco iquesvidea. Ayte batec, celan semiac au-reratuten daben edadean, emoten deucesan biar dituen ycasvideac, modu berian Jaungoi-coac emon deucezala guisonari, rrevelaciños ycasvide santuec. Ecín bada ychi euquian Jaungoicoac lelengo san guisona ycasvide baric; ecín adornau euquian graci, eta justicie ori-ginal sanagas, ulertutene emon baric, nondic datorquion, eta celan empleauco dituen graci onec; ecín ychi euquian, lelengo guison au, Jaungoicoac erlegiño baric, ceiñeri eracusi biar eucesan Jaungoicoac proximu eta vere vuruenzaco euqui viar cituen obligaciñoac.

Icusiric bada cristiñauac, sinestuten dabela, bere lelengo gurazo san Adanec siñistuten eban Jaungoico eguiascoagan da cristinau baten espirituenzaco consueluric andien bat.

Icenic guisona libre, eta ovedienciaren capaz, ovediencie zor eucen berari izaitea emo-nico Jaungoicoari, eta Jaungoicoac, guison libre zanari aguindu yan eceiteco arich bateco frutea. Aguindu santueu cumplidu ecic ezarrico cituela, negargarrisco gachac bera, eta bere generaciñora - Ge. c. 2. - Angueru galduzanac atan imiñiric, auci eban, Adac (sic) aguindu santuek. Jaungoico, gustie dacucenac, arturic contue, condenau eban Adan, eta bere gene-raciñoa desgraci, eta eriozara Gen. C. 2 v. 12. Ondo eguiten daben bat, ofendidu esquero,

dude baric deuco escuvidea, castiguetaco charto eguin deucena; ycenic Jaungoicoa guiso-hac ofendiducoa, justo dan Jaungoicoac, bere misericordiegas, parcatu eucen guisonari, eta prometidu Redemptore bat, guisonan delituec ecarrico gachac errepares-taco; promes onegas lelengo guisona (220) pecatuen jausicoa, lotu consola, eta penitente eguinic.

Munduen creaciño lelengo guisona pecatuen jaustea, eta Jaungoicoac berari eguinico Redemptore baten promesa, estitus alcacetan (sic) guisonan, errazoyac, espada Jaungoicoaren revelaciñoari siñisqueria emoteac. Guisonac bada, demporic galdu baric, biar eban erlegiño onen campotico cultoa aci, guisonac Jaungoicoari asteco egun bat consagrauegas. Ezauturic Adan eta bere semiac pecatariec ciriala, onen satisfaciñoraco, ofrecidutene eucesan Jaungoicoari garvitoquico sacrificioac, emonic Jaungoicoari frute, eta arteguien primiciecumplidu bere voto eta promes eguiten cituenac.

Bigarren conzuelue

Munduen acquieran, guisonesco bazaar ycenic chiquerra, orregaiti bazar chiquer san au, egoan ayta lenen edo Patriarcan direcino, eta ycasvideagas, eta euren siñisqueria, edo fedea ygaro euren ondorengotara, eta onec siñistu, Jaungoicoa es bacarric zala gaucen criadorea, baita euren conservadorea, eta ondo eguiten daben sari emozallea eta charto eguten daben castigu emozallea. Aumenturic demporas, guisonen bazaar, alde eguin biar eu-den guisonac ayte lelengo, edo Patriarcan direcino, eta ycasvideti, eta orra non astuten dan guisonan artean, lelengo munduen cirian guisonac euquico fede, eta erlegiñoa, ain modutene, Jaungoicoac bere poderio, eta magestadea eracusteco criadu eban mun / due (221) umanidadeco parteric naucien, idolatriaco templu eguinic lotuce; Jaungoicoa esan ametan, eta beste gaucec Jaungoicosat ametan cirian.

Ofendiduric Jaungoico, guisonaren esquerbacotasunegas, Jaunaren aurrean justo san Noeri, aguindu eucen Jaungoicoac, casa bat eguin, eta bera, bere familie, eta genero gustie-taco animalie bertan zartuteco. Cumpliduric Noec aguindu santueu uresco tormenta bategas ondatu eban Jangoicoac Adanen generaciñoa, loturic Noe, eta bere familie Adanen troncal mundu onetan. Noeri Jaungoicoac dempora onetan emonic erlegiñoa, san ayta lenen, edo Patriarcaj emonicoa verbera. Noec consagrauric Jaungoicoari bere vioza, eguin bere zituen garviteguico sacrificioac; eta Jaungoicoac legue particular bategas Noen semiai aguindu, iñor es iltea eta animalien odola edan eceitea - Gen. c. 9 V. 4.

Liburu Sagraduec deucen rrevelacinosco ycasvidea, esta guisonaganic etorriko, eta bacarric Jaungoicoaganic etorriko: Bere vorondate santuco icasvidea emon eucen Adan, Enos, Noe, Isac, Jacob, eta bere servicio santuen vicico justoai, eta guisonac gorde valeu ira-caste santuen, esan aurquituco, mundu onetan besteric, espada vaquia, eta zoriona, guisona aragus janziric, angueru bet icengo zalaco.

Irugarren conzuelue

Igaroric mille, eta bost eunde urte, munduen creciñotic (sic) pecatuec guisonari ichico inclinaciño deungueagaiti, gu / rasoac (222) seme alabac Jaungoicoaren vildur santuen aci ezagaiti, interesan codiciec, eta pasiño charren deadarrac guisonaren viocean gueyago egui ieban Jaunaren icasvide santuco deadarrac baño, eta zartu guizona Jaungoico guzurrescoac adoretan, edo idolatrien. Estadu onetan, celan erremedieu guisonac bere ganian euquesan gachac? Noc yrecasi Jaunaren rrevelaciñoco ycasvidea santue guisonari? Beti misericordio-soa dan Jaungoicoac, dempora onetan, rrevelaciño santuco icasvidea emoten deuzo Isrrael-go errieri, ceiñegas aurquitu eban, Adanen generaciñoac, bere zoriontazune. Faragonen alabeac atera eban Moyses uretati, eta dempora atan aurquiturico Moises bere guinerraba, Jetro

erichonen arteguie yagoten Mediaco mendien, Jaungoicoac elegidu eban Moyses ycasvide santuco leccioac munduen salvduteco, Ymiñiric Moyses Israeltarren vuru, eta vera vitarteko zala, ez bacarric yrecasi Adan, Enos, Noe, Abram eta beste Patriarcac yrecasicoa, baite anunciau humanidadeac, etocen demporatan, biarca cituen legue santuec.

Confirmau eta sendaturic Jaungoicoac bere poderioa milagroso trugoi, eta justuriecas, Syñai erichon mendien; arri biten sellauric emon eucesan Moyceseri guisonanzaco cirian legue santuec, eta dire gaur artean direuen amar mandamentu santuec. Elduric guisona, escritos Jaungoicoac bere legua emonico demporara, gure ycen eban, guisonac berari magesta de andiagogas cultoa (223) emotea, eta onetaraco sacerdotea elegidu Moycesen anaya san Aron erichona, erlegiño santuco culto, edo ministerioa eguiteco.

Igaroric lau mille urre munduen creaciñoti, eta dempora onetan aurquitu Adanen generaciñoan parteric naguciena emperadore san, Erromaco vuru ceuen aspien, dempora onetan Jaungoicoaren semia araguis aguertuten da munduen, eta emon berac, humanidade errazisco zanari, graciasko leguea. Maravillas beterico plan au, ecin etorri zateguien guisonan entendimentu laburreti, eldutene dalako cateda batetic munduen creaciño arteco demporara eta ireun biarca, ycengo dirian dempora gustietan.

Laugarren conzuelue eta egui

Jaungoicoa infaliblea da, eta bere señalea da, dempora gustietaco conformidadea natural, eta naturalesas goiti dirian gauce gustietan, eta orregaiti Jaungoicoac yñor ecin engañaui lei, eta es bere vurue bere; eta bere justo dan Santidadeac, esteuzo irrelau guisonari dempora batian, beste dempora batian contraco gauceric.

Adanen siñistute eta beste Patriarcac euquicoa, esan contradicidu Moysecic eta beste justuac euquico fede edo siñisqueriagas; Jesucristoc gracieco demporan yrecasicoa, Jaungoicoac munduen cirian lelengo guisonai irecasi eucen contraco ecegoan. Jaungoicoac rrelacinos guisonari yrecasicoa, Jesucristoc gracieco demporan, sendatu, (sic) confirmeu, eta argiuro espliqueuric ichi / (224) eban.

Acavuco epoca edo demporan completau eban Jesucristoc graciasko sobrenatural dan legue santue, ceiñec bacarric amatau daroa, guisonan espirituco egarrue. Graciasko obra sobrenatural dan onec yreungo deu siglu gustietan, Jesucristoc prometidu ecelaco, bere yreupidea, bere vicario lurreco ycengo sanari- Ipsa sit cum fidelibus suis, usque, ad consumacionem seculi, Mat. C.4. Celan bada consolauco eta cristiñau baten vioza, ycusiric profeseten dabela Jesucristoc graciaco demporan fundauco erlegiñoa? Ceiñetan bacarric adoretan da santu gustien santue, cein dan Jaungoicoa.

Es naturalecea, es mundo paper gustie da asco aspliqueutaco Jesucen erlegiño santuco maravilla; cebat gueyago expliqueu, cebat gueyago examiñeu bere cause maravillosa, lotuten da neurri baga, eta fondo baga eta bacarric esan biarra da: andi, eta miragariac dire Jauna berorren eguiquerac - Magna opera tua domine.

Bostgarren conzuelue

Eta edocein demporan, edocein estaduten, biarrecoa deu guisonac, sosegu, eta seguro euquico dabent gauce bat; guisonen espirituco, bere viozagas esteu aurquitu sosegu, es segurensaric (sic) yreupideric esteuquen gaucetan, gustie guisonari acavetan jacolaco.

Guisonac bada trabaju, eta desgracien, biarrecoa deu consoletaco gauce bat; biarrecoa bere pasiño charrac dometaco freua (sic), edocec lotu; biarrecoa virtutea aurquituteco, eguiaren arguitasune. Da non aurquituco ditus precios beterico gauce onec? (225) Jesucen

erlegiñoco casa santuen. Cer bada icengo san Adan eta bere generaciñoagas euqui espi-leu, jaungoicoaren aldeti, redentore baten promesa?

Desesperau, eta betico galdutea. Da cer ycengo san Jobategas (sic) osasun eta fortune-agas galdu valeu erlegiñoa? Galdu valeu Jaungoicoagan euquen esperancea?

Jesucen erlegiñoac deuco guisonan espirituenzaco sosegua, eta vaquia, desgraciaco conzuelusco balsamue eta virtuteco videa yrecasteco, guilz erratuten estaquienra. Pasiño charrac dometaco, legue arin eta busterri bigune -De Syon exibit lex, et verbum domini de Jerusalem - Izai. C. 2. Anditazun, eta pasiño deunguiaren demporea, queris baten moduen igaro doa gauce onec amatan dituenac, eurec ycengo, egun baten aranza eta tormentu baya Jaungoicoaganic datorren erlegiñoac edade, estadu, eta dempora gustietan deuco guisonan espirituente consolidateco balzamue. Emen bacarric aurquitu edertazun, eta gracie guisonan espirituenzaco. Guisonac ez ezautu eguiñegaiti, esta importa, Jaungoicoac dacuz guisonan vio-za, eta orregaiti bacochari emongo deuzo bera - Tunc redet unicuique secundum opera sua Pet. ad. Rom. C. 5.

Seigarren conzuelue eta eguiue

Jesucen erlegiñoac admitietan estabelaco besteric, espada eguiue, lurreco Jesucen bica-rio danac alvorans votaten dabelaco guzur, eta errorea, ichasoac alvorans votaten dabent le-gues beragana datorren loquierie, erlegiño onec deuquen intoleranciagaiti, Adan semiac di-ñoe: letraco jaquiturie dagoala aceraturic, ycenic Jaungoicoac revelauco misterioac natura-lesas goiticoac, eta guisonan errazoyac fedea / (226) alcancetan estituenac, Ellexa ama santeac esteu admitietan, fedea articuluen ganeco disputeric. Ce letrasco dan ciencieri era-gosten deuso Ellexeac guisonari euren ganeco jaquiturie iquisten? Da teologie, metafisiquea, fisiquea, jurisprudenci, historia naturala, astronomie, edo arismetiquia? (sic).

Ondo examineuric gauce au, ataraco dan idalguie da: Teologiaren idea, edo objeto estu-diauten dirianac guisonan errazoyac alcacentan (sic) estituenac dire, eta bere errazoyagas zar-tuco valiz Jaunaren revelaciñoco misterioac estudietan, ecer es leuek iquisico, eta bay asco galdu. Orregaiti biarrecoa da fedea, eta euquiric puntu cardinal dan au, yquisico dire ydea, ob-jeto eta teologiaren ganeco misterioac. Fedeac comunqueuten deuso guisonari argui eder bat metafisiqueco ciencia iquesteco, ceñic direuquen; non aurquituten dan jaquituri eguiascoaren miñea. Orregaitic dempora onetaco filosofoac, deque asco adelantauric cienci onetan, anchineco filosofoan aldean, bida onec, federic euqui ecegaiti alperrico estudioac egui cituen. Ju-risprudencieco cienciari, bere errama gustiecas, Ellexeac ychi escrividu, eta discutietan, cienci oneri datorquion genero gustietan, eta modu beri[an] beste garaiteco esan dirian cienciaj.

Eracusiric guisonan espiritusco egarrie amataten dabent erlegiñoa, dala Jaungoicoaren escutic urtenicoa, cein dan compendio chiquerra verbetan, baya neurri bacoa, deuquesan misterio, eta sentencietan - Simbolum est nobis regula fidei nostre, brevis et grandis: brevis numero verborum, grandis pondere sentenciarum. (227) Ag. serm. 135. Erlegino onegas con-solau bedi bacocha.

**LAUGARREN TRATADUE CEIÑETAN ERACUSTEN DIRIAN GUISONAC ONDO EXAMI-
NEU BIAR DITUEN EGUIEC**

Lelengo eguiue

Guisonaren vieie, eternidadeagas comparauric, da ecer esa, eta guisonac il biar devela, dudebacoa, egunero icusten dan gaucea dalaco, guisonac urte guichi varru icasi biarra deu-co sepulturera, eta icusi biarca Jesucen erlegiñoac irecasten dituen fedeco eguiac: Jaungoi-

coac egungo deucen juicio, eta bere betico icengo dan sentencie; guisonac siñestuten espadu, Jaungoicoac rrevelauco misterio santuetan, bere sinistu eceiteac, esteuzo quendu.

Jaungoicoac guisonanzaco eternidade gustien decretauric deuquena, eta decretoetariico bat da, aurquitutea beste mundu bet, ceiñetan deuquen Jaunac bere siervoenzaco betico premioa, eta eciriananzaco betico castigue.

Bacochari joco deuzo acauruco canpaya demporeac, eta guisona, veguiec iciric, eternidadeagas aurquitu. Asunto iquregarrieu ycengo guisonanzaco, bacarric munduen egongo balice legues, bere lecuen iñor jarico estalaco betico dan suertea igaroten. Eguie onec bada iracasten deuzo guisonari, importanci andicoa dala erlegiño eguiascoan, eta bere misterioetan ondo, eta astiro pensetea. Badiño guisonac: estot mediteu, eta pensau gure erlegiño, eta bere misterioetan, bardin deucela edocein suerte eternidadean aurquitutea, da zoro bate legues verba eguitea.

Videsti doyan batec aurquituric erreca (228) peligroso bat igaroteo, eta errequian alboan dagozanac ezanic, andic igaro eceiteco, errequia dalaco sacon, eta corront andicoa, eta bertati igarotea peligrosoa; gustiec ezanaco consejue despreciauric, votaten deu vurue uretra eta itoric lotu noc deuzo errue? Berac bacarric, bestean ezanari siñisqueria emon ezagaiti. Beste onenbeste esan biar da erlegiño, eta bere misterioac indiferencien deuquesanagaiti. Ezanagaiti: ondo examiñeu, eta pensetaco erlegiño, eta betico eternidadean, eranzuten badeu: Cer deuzo yñori ni condenau, eta infernuen zartuagaiti? Au de benetan entendimentu ychuen zorotazune.

Bigarren egui

Adanen generacinoco dan humanidadadeco parteric naucienac, interes andieneco gauce bat legues, veguiretuten deuzo erlegiñoari, eta vere misterio veneragarriei; guisonic jaquin-zuenac pensau deude astiro erlegiñoan ganian, dalaco betico zorion, edo zorigaistoko suertea, guisonanzaco.

Leguiaren cartillechuec, eta gaur arteco escritoac eracusten deude biarrecoa dala ondo pensetea guisonac erlegiñoan ganian, cegaiti erlegiño eguiascoa euquiteric guisonac eta guzurrecoa euquitera da diferencie andicoa betico dan eternidaderaco. Dispute, eta pensamentu asco egon da erlegiñoaren ganian. Biblioteca, eta archivoac escritos beteric dagos gauce onen ganeraco, gueure demporan bere asco escrivietan da onen ganian. Guison indiferencien dagoanac badino: gustiec estabela merecidu examine eta atenciñoa imintea, berac, juz / guetan (229) dabela pensau, leidu, eta iñori enzun baric gauce orretan alperric denporea galdutea dalaco.

Modu onetan indiferencien erlegiñoa deuquenari, esan biar jaco: Nor zara zu guisonan vioceco ientimentue quendu, eta borretaco? Nor zara Jaungoicoan rrevelacionac zapaldu, eta catea batetic legues, mundue creau zanic eta gaur arte datocen tradicioñoac, quenduteko? Guisona ilgo estalaco secretoren bat aurquitu dozu?

Guison gauceric yqueragarriena indiferencien deuquenac, jarri biar leuque sepulturen ganien, ceiñec usteric guichien dianian estalduco daben, eta vertati veguiretu etorrico jaca (sic) betico dan desgraciesco suerteari, Jesucen erligiñoan campoti aurquitudun bada.

Irugarren egui

Ozaturic guison indiferentea, bere entendimentuko gueso, eta ichutazunerik; ezauturic erlegiño eguiascoa dala importancie andicoa bere arimentzat; igaro biar deu aurrera, eta eguinik astirosco examinea, eta atera idalguisco dan discursoa bere entendimentu ychutazu-

neric urtenecoari. Erlegiño gustiec ecin ycen leites eguiasco, eta Jaungoicoari agradableac. Munduco lau parteatan aurquituric bazar asco euren erlegiñoicas, posible ete da gustiec eguiascoac, eta Jaungoicoari agradableac yctea?

Es, edo bay. Jaungoicoanzaco ecin ycen leites gustiec onac, eta agradabliac. Judioac diñoe: Mesias ezala etorri mundure; cristiñauac confesetan deude etorri zala, eta berac bacarric erredimido ebala mundu galduric egoana. Turcuc adoretan dabe Mahoma profeta / (230) bat legues, cristiñauac despreciau profeta falso bat legues.

Catolicu dirian cristiñauac siñistu eta defendiduten deude, Ellexa Ama sante catoliquea dala Jesucristoren esposa, eta berac ecin erratu leyla fedeco dirian misterioetan, protestanteac uquetutenean daben. Eguie ecin legoque bien aldeti; bazuec edo bestiac engañañ biar deude, eta idalgusco edo ylaciñosco consequencie da, erlegiño gustiec ecin ycen leiteazala eguiascoac, eta agradableac Jaungoicoarenzaco, berau bacarric dalaco eguiie bera - ego sum veritas -. Eta bere santidadeac ecin aceptau leique guzurric, es santu estan gauceric. Esatea bada: genero gustietaco erlegiñoa dala ona, edocein culto, eta adoraciñoagas cumplietan dabela guisonac Jaungoicoari zor deucena, da blasfemi, guzur eta errore completoa.

Laugarren egua

Possible al da guisonari Jaungoicoac errevelatea vere secretoco misterioac? Esta duderic cetan euqui irrevetan leiquecela, eta irrevetan bere dituela Jaungoicoac emon badeuzo guisonari bere viozeco sentimentu, eta secretoac beste guison bateri eracusteco berbia. Guisonac badeuko bere pensamentuec beste guison bateri eracusteco facultadea, Jaungoico gustis poderoso danac celan euquico esteu bere divinidadeco secretoac guisonari eracusi, edo irrevetateco facultadea? Jaungoicoac criaduric guisonan entendimentue, ecin emon eusquio guisonari, arguitazune, Jaungoicoa ezatu (sic), eta gauce gustien ganean bera bacarric ametaco? Dude baric bada Jangoicoac irrevetan deuces guisonari, bere divinidadesco secretoac. Cause eta euren eguitadeac, ceinzuec dirian maravillosac, obliguetan (231) dabe siñistu, eta ezaten Jaungoicoac guisonari irrevetan deucela, bere vorondate santuco secreto eta misterioau.

Mundu gustico erriez siñistu, eta verba eguiten dabe, Jaungoicoac guisonari irrevetan deucezala bere misterioac, eta mundu gustico guisonac imposible da, alcarregas vanandutea guzur bet componduteco. Arguero da bada Jaungoicoac irrevetan dituela bereac dirian misterioac, fedeco dan eguien etorri dalaco gurazoetari seme atara (sic), siñiqueri au zarturic munduen, gaur arte.

Aurquitutenean da Adanen generaciona dan humanidadean bazar bat, ceynec dinoan: bera dala bacarric depositario, eta interpreta Jaungoicoac irrevetako misterioan ganian; bazar onen prentensioari imini biar deuzo (sic) guison gustiec atenciño andie, eta eguiin examine ardurescoa, eguiie aurquitu, eta eguiaren filoso (sic) bat iceteco. Cein da bada esan dan bazarra deuquen errazzoisko dan pretenciñoa? Ume umetaric gurasoatara igarocoa, generacioneric generacionira igaroten dana. Da ce titulu presentetan deu bazar onec, bere pretensiñoa cendatu, eta confirmetaco? Lelengo liburu sagradu bet, cein dispute baga dan zarrena, ceinec zarraturic deuquesan moralidadeco legue santuec, eta Jaungoicoac eguinico mirariec. Bigarren bere pretensino, eta icasvidea justifiquetaco dino: anchineco legue natural, eta escritosco leguea, graciasko demporaco leguiegas basandu (sic) ciriala, protericeuric egoan moduen misterios beterico liburu zarrenian ataraco (232) eldu zalaco Jaungoicoac señalauric euquen demporea.

Jaungoicoaren seme natural sana, aragusit yanciric mundure etorricoac, completatua eba-la anchineco leguea (- consumatum est passi domini - (sic)) eta graciasko san legue santue-

ri emon acquieria: anchine jasoneco misterioac bacarric cirialaco yrudi edo figurec, ceinzuec rrealidadean jason dirian graciasko demporan. Jaungoico eguiere bera danac ecin yñor engañu lei, es bere vurue engaña leique.

Jaungoico seme san onec fundau ebala bazar bat, Ellexa catoliquean icenagas eta berari bacarric prometidu eucela, bere jagola ycetea etocen sigluetan.

Cein san bada Jaungoico, eta guison sanen doctrinea? San doctrine bat cein irecasí ecin euquian mundu onetaco guisonec, garvie moral, eta bere aguindu santuetan. Santidadesco san doctrine oneri, justicie egui deuce bere arerio dirianac. Ce cambio egui eban moduen Jaungoico, eta guison eguiascoa sanac? Veguiretu historiay eta eurec diñoe: Munduko parte naucien vuru cen Roma cer san Jaungoicoaren semia mundure etorri artean, eta cer dan gaur arte. Jaungoicoa mundure etorriric, icusi cetan dagosan bere doctrinea errecividu estaben errie, eta bere doctrina, edo Evangeligas dagosan errie, eta aurquituten da euretan diferencie andi bet: bazuec dagosalako ychutazun, eta barbaridadean zarturic eta beste-ac arguitazun, eta moralí / dadeagas (233) apainduric. Ce medio euquen bere magestadeac, bere doctrinea munduen zabalduteco? Es besteric espada predicaciøña millagroacas confirmeuric. Millagro onec yñoc ecin uquetu leiques. Uquetu eta alvorans voteagaiti, esta importa, orduen confesau biarra deuqualaco millagroric andiena, cein dan millagro baric mundue convertiduric lotutea.

Doctríñe au yrecasteagaiti, cer jason eguiion mundu onetan Jaungoicoaren semiari? Bere odol preciosoa ezarri, cruce baten vicie emon, eta erredimido Adanen generaciøn betico gal-duric egoana; yl eta irugarren egunian vixtu. Vixtu zanic berrogueigarren egunian ceruetara igo, prometidu eban legues, trinidadade Santissimaren yrugarren personeea, cein dan Espiritu santo Jaune, etorri apostoluec gana. Orregaiti Ellexa ama santa catoliqueac bacarric deuco eguiaren sellue - Hec est veritas, et que habet viam, ad vitam eternam. Joan. C. 17. V. 3 (sic).

Bostgarren egui

Jesucen erlegiøo catolicuec ofrecietan ditus, gure dan besteko seguridade, eta garantie: berac bacarric iminten deuzo guisonari justo, eta artes dan legua, cein cumpliduric, mundu onetan, ycengo da guisona, angueru bet aragui mortalean: berac bacarric deuko, guisonan desgracieraco, consolagarrisco balzamue, eta berac bacarric deuko guisonan egarri espirituscoa amatateco, graciasko ur ederra.

Jaungoicoaren graciegas, casa santa onen barruen dagoan cristiñauac, yarrai /tu (234) biar deuzo virtuteco ideari, eta fragilidadeac atan iminiric, yausi bada faltaren baten, ceiñegas ofendidu daben Jaungoicoa, igaro biar deu sacramentuec, biar dirian prestarcas (sic), artutera, ceinzuec ichi cituen Jesucristoc arimec santifiquetaco. Modu onetan, cembat guisona eriozara urreratu, erlegiøo santa dan onec consolauric ysten guisonan espiritu, Jaungoicoac prometiduric deuquelaco, justo danenzaco betico zoriona. Guisonac bada, ychiric erlegiøo catolicu Jesucena, ce erlegiønotara joango da? Protestanteac profesauten dabenera? Eta euquiric onec aimbet, partidu, divisio, difencie profesauten daben guzur dan erlegiønoan, cein partidutera arrimeuco da? Ce seguridade, edo garantie emon partidu batac, edo besitiac? Igaroco da turcuer deuquen partidure? Eta bertan adorau Mahoma baten sancarroya?

Guisona aldenduric Jesucen erleginotic, cein bacarric dan eguiascoa, bere autore Jaungoico, eta guison eguiascoa, egui baño estalaco, eta eracusi dan legues, erlegiøo santa onec bacarric euqui seguridade, garantie, prueva, eta milagroac, guisona lotuko lizate erlegiøno baga, ygaro urteac ychutazun, eta ylluntasunian. Jaquin baric cer egui vici den artean, eta aurquiu arguitazun baga eternidaderaco; eldu usteric guichienian eriocea, eta betico galdu - Gens et Regnum quod non te serviret peribet. (sic) - Isay. C. 6 Laus, honor et gloria sit soli Deo.